privatua erabiltzen du; horietatik % 28,5 autoz ibiltzen dira, eta gehientsuenak bizikletaz edo oinez joaten dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko balioetan, gehien erabiltzen den garraiobidea garraio pribatua da (% 39,4), eta, horietatik, % 38,4k autoa erabiltzen dute; ondoren, oinez edo bizikletaz egiten diren joan-etorriak datoz (% 37,6), eta, azkenik, garraio publikoa (% 22,9).

2015eko eta 2020ko errolda-datuak alderatuta beha daitekeen joeraren arabera, garraio pribatua eta autoa gero eta gehiago erabiltzen dira, eta, halaber, oinez eta bizikletaz egiten diren joan-etorriak ere ugartzen ari dira; garraio publikoaren erabilerak, berriz, ia 6 portzentaje-puntu egin ditu behera.

Bizkaian, 2020an garraio pribatua erabili zen gehien (% 36,3), eta horren ondoren etorri ziren bizikletaz nahiz oinez egindako joan-etorriak (% 34,8); azkenik, herritarren % 28,9k garraio publikoa erabiltzen zuten. 2015arekin alderatuta, oinez eta garraio pribatuan egiten diren joan-etorriak ugartu egin dira, eta garraio publikoaren erabilerak behera egin du (7 portzentaje-puntu baino gehiago).

Baliteke COVID-19aren pandemiaren ondoriozko mugikortasun-mugaketek Euskal Autonomia Erkidegoko eta Bizkaiko balioetan eragin izana, inkesta 2020an egin baitzen.



² Ingurumenari eta familiei buruzko inkesta. Erreferentziatzeko aldia: 2020. Euskal Estatistika Erakundea

2.2. EGOITZA-MUGIKORTASUNA

Biztanleriaren bizileku-aldaketen azterketari esker, azpiegiturek lurraldeko hiri-sakabanaketaren prozesuan duten eginkizuna ikus daiteke; izan ere, eragina dute herritarrek ohiko joan-etorriak egiteko jarraitzen duten trafikoaren mugikortasun-ildoetan.

Bizileku-mugikortasun hori migrazio-saldoaren bidez aztertzen da; hots, biztanle berrien eta joaten direnen arteko diferentzia hartzen da udalerrri bakoitzean.

Hala, saldo hori positiboa denean, udalerrria biztanleak erakartzen ari da, bertan bizitzera etor daitezen.

Prozesu horrek lotura estua dauka lurraldeko egoera ekonomikoarekin, eta, azken 25 urteotan, Bizkaian, migrazio-saldo positiboak ugariagoak izan dira ekonomia-oparaldietan.

1998tik 2007ra, ekonomia- eta finantza-krisi orokorra baino lehen, honako hauek izan ziren egoiliarak erakartzeko eskualde nagusiak:

- Bilboko Metropoliaren Eremua, Bilbo, Sopela, Etxebarri, Arrigorriaga, Leioa, Gorliz eta Berango udalerrietan;
- Mugialdea, gehienbat Mungia udalerrian, eta
- Durangaldea: gora egin du Durangon edo Amorebieta-Etxanon, eta behera Ermuan eta Iurretan.


Migrazio-saldo positiboek harreman zuzena dute hiri- eta egoitza-garapenarekin. Etxebizitza-kopuruaren igoeran ikus daiteke hori: % 70 Etxebarrin, % 50 Durangon eta % 32 Mungian.

Bestalde, industrialagoak diren udalerrietan (hala nola, Basaurin, Sestaon, Santurtzin eta Galdakaon) edo herri handiagoetan (besteak beste, Portugaleten edo Getxon), migrazio-saldo negatiborik handienak ageri dira, Ermuaz gain.

Migrazio negatibo horrek zerikusia du familiek aldi horretan duten ahalmen ekonomikoarekin, baita etxebizitza hobetzeko nahiarekin ere (hain zuzen ere, biztanle-guneetatik kanpora dauden beste batzuetara joateko gogoarekin), zeren eta etxebizitzaren prezioa handiagoa izaten baita halakoetan eta zailtasun handiagoak baitaude hirigune berriak izateko.

2007az geroztik, aldi ekonomiko berria hasi zen, non lanpostuak desagitea izan baitzen ezaugarri nagusia, baita okupazio-tasa txikia eta biztanleria aktiboaren hazkundea ere. Bizkaiko lurralde historikoko urteko batez besteko langabezia-tasarik handiena 2014an izan zen (% 17,2koa), eta okupazio-tasa % 46,1era jaitsi zen.

Krisiaren urterik txarrenak igaro ondoren, argitaratu diren azken datuen arabera, 2021ean Bizkaiko langabezia-tasa % 11,2koa da, aurreko urtean erregistratutakoa baino % 0,6 txikiagoa.



Enplegu-adierazleak (1985-2021)

2014tik aurrerako susperraldi ekonomikoa, halaber, Bizkaian erregistratutako guztizko migrazio-saldoetan ikus daiteke, positiboak baitira; azken bost urteetan, guztizko migrazio-saldoa 29.685 izan da.

Udalerririk txikienez, 20.000 biztanletik beherakoek eta 100.000 biztanletik gorakoek jasotzen dituzte egoiliar gehien. 50.000 eta 100.000 biztanleren arteko udalerriek, aldiz, biztanle gutxiago jasotzen dituzte.


AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

Migrazio-saldo metatua. 2016- 2020 aldia

Bizkaiko udalerria (biz.)	Saldoa (biz.) 2016-2020	Eskualdea	Saldoa (biz.) 2016-2020
< 1.000	563	Metropoliaren Eremua	23.900
1.000 – 5.000	3.544	Mungialdea	1.368
5.000 – 10.000	2.656	Busturialdea	700
10.000 – 20.000	3.312	Lea-Artibai	614
20.000 – 50.000	6.438	Durangaldea	1.394
50.000 – 100.000	2.719	Arratia/Nerbioi	797
>100.000	10.453	Enkarterri	912
BIZKAIA GUZTIRA	29.685	BIZKAIA GUZTIRA	29.685

Eskualdeka, Metropoliaren Eremuaz gain, Durangaldea eta Mungialdea jaso dituzte biztanle gehien. Aldi honetan, honako udalerrri hauek jaso dituzte egoiliar gehien: Bilbo, Barakaldo, Leioa, Santurtzi, Durango, Basauri, Amorebieta-Etxano, Urduliz, Portugalete eta Sopela.

Azterketa honetan ondoriozta daitekeenez, bide-azpiegiturak hobetzeak edo prestazio handiko sarea izateak erraztu egiten du bizilekuaren eta lantokiaren artean mugitzea. Horrek esan nahi du biztanleak hazkunde handiagoko eremuetara joaten direla, eremu metropolitarraren kanpo, sakabanaketa handiagoa ekarri horrela.



Migrazio-saldo metatu handienak dituzten udalerrriak (2016-2020 aldia)

■ Migrazio-saldo negatiboa ■ Migrazio-saldo positiboa

2.3. ENPRESA-DEMOGRAFIA

Bide-sarearen ondorio ekonomiko nagusietako bat zera da, sekulako eragina duela inbertitzaile pribatu industrialak nahiz zerbitzu-etako inbertitzaileak kokatzeko orduan.

Atal honetan aztertzen denez, AP-8a, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea eta Artxandako Tunelak, ahalmen handiko bide-sarearen zati diren aldetik, beharrezkoak eta funtsezkoak dira Bizkaiko ekonomia, enpresak eta lurraldea garatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2021. urtean, orotara, 169.897 establezimendu daude eroldan jasota (dendak, bulegoak, lantegiak,...), eta horietatik 88.160 Bizkaian daude (guztira, 455.715 laguni ematen diete lana).

Establezimendu-kopuruaren aldetik, ugariena merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-sektorea da, establezimendu guztien % 37,0 baitira, eta, ondoren, jarduera profesional eta laguntzaileak (% 16,7) eta eraikuntza (% 12,3) datoz.

Enpleguari dagokionez, lan egiten duten biztanleen % 26,3k merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-sektorean egiten dute lan; % 23,9k administrazio publikoan, hezkuntzan eta osasunean, eta % 16,9k jarduera profesional eta laguntzaileetan.

2008tik, establezimendu-kopuruak behera egin du; batez ere, 2009-2013 aldian.

COVID-19aren pandemia sanitarioaren ondoriozko mugikortasun-neurri mugatzaileek eragin handia izan dute ekonomian, eta establezimenduen kopuruak % 1,7 egin du behera 2020an, eta % 0,8 2021ean; hortaz, 2019an baino 2.301 establezimendu gutxiago daude. 2021ean dagoen establezimendu-kopurua azken hamarkadan erregistratutakoa baino askoz txikiagoa da.


Azken estatistika-datuak pandemiaren aurretik erregistratutakoekin alderatuz gero, gehien ukitu diren sektoreak merkataritza, garraioa eta ostalaritza izan dira (1.370 establezimendu gutxiago daude, -% 4,0), baina baita jarduera profesional eta laguntzaileak (530 establezimendu gutxiago, -% 3,5) eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza (230 establezimendu gutxiago, -% 11,8) ere.

Azken bost urteetan, administrazio publikoan, hezkuntzan eta osasunean igo da gehien establezimendu-kopurua, 608 establezimendu gehiago baitaude (+% 6,4); halaber, gehikuntza egon da jarduera artistikoetan eta bestelako zerbitzuetan (587 establezimendu gehiago, +% 8,7) eta informazioaren eta komunikazioen sektorean (177 establezimendu gehiago, +% 1,7).

2.3.a) taula **Establezimendu-kopuruaren bilakaera eta urterik urterako aldakuntzaren %, jarduera-sektorearen arabera**

Jarduera	2018		2019		2020		2021		
	kop.	% Δ	kop.	% Δ	kop.	% Δ	kop.	% Δ	enpleguaren %a
01. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1.877	-3,1	1.950	3,9	1.892	-3,0	1.720	-9,1	1,0
02. Industria, energia eta saneamendua	4.955	-1,0	4.921	-0,7	4.838	-1,7	4.729	-2,3	15,0
03. Eraikuntza	10.650	-0,1	10.915	2,5	10.708	-1,9	10.834	1,2	6,5
04. Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	34.478	-2,5	34.035	-1,3	33.115	-2,7	32.665	-1,4	26,3
05. Informazioa eta komunikazioak	1.948	1,3	1.967	1,0	1.988	1,1	2.033	2,3	3,3
06. Finantza- eta aseguru-jarduerak	2.469	-2,9	2.485	0,6	2.388	-3,9	2.316	-3,0	2,0
07. Higiezinaren arloko jarduerak	1.831	1,2	1.858	1,5	1.735	-6,6	1.788	3,1	0,6
08. Jarduera profesional eta laguntzaileak	15.038	-0,7	15.251	1,4	14.940	-2,0	14.721	-1,5	16,9
09. Adm. publikoa, hezkuntza eta osasuna	9.832	2,0	9.988	1,6	10.064	0,8	10.041	-0,2	23,9
10. Jard. artistikoak eta bestelako zerbitzuak	6.950	1,2	7.097	2,1	7.222	1,8	7.319	1,3	4,5
Jarduera guztiak	90.028	-0,9	90.467	0,5	88.890	-1,7	88.166	-0,8	455.715

Iturria: Eustat



Bizkaiko establezimendu-kopuruaren banaketa, langile-kopuruaren arabera (2021)

Establezimenduek herrialdean duten banaketari dagokionez, udalerri bakoitzeko biztanleria kontuan hartuta, batez besteko ratioa 7,7 establezimendukoa da 100 biztanleko, eta balioa antzekoa da Bizkaiko zazpi eskualdeetan.

Udalerriaren tamainaren arabera, hiriburuak eta 1.000 eta 5.000 biztanle artean dituzten udalerriek batezbestekoaren gainetik dagoen ratioa dute 100 biztanleko: 9,4 establezimendu 100 biztanleko.

Udalerri handienetan, 20.000 - 50.000 biztanle artekoetan, ratioa txikiagoa da, 6,3 establezimendu baitauzkate 100 biztanleko.

Enpresaren tamainaren arabera, enpresa gehienek (% 93,9k) 10 langile baino gutxiago dauzkate, eta horien % 77,5ek bakarra edo bi dauzkate (60.000 inguruk). Bestetik, 250 edo langile gehiagoko 71 enpresa handi daude, eta, batez ere, industria-, energia- eta saneamendu-sektorekoak (33), administrazio publikoaren, hezkuntzaren eta osasunaren sektorekoak (29) eta jarduera profesional edo laguntzaileen sektorekoak (23) dira.

Hiru sektore horiek aztertuko ditugu: merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-sektorea, industria-, energia eta saneamendu-sektorea eta administrazio publikoen, hezkuntzaren eta osasunaren sektorea.

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

Hiruren artean, Bizkaiko lanpostu guztien % 65,1 metatzen dute, 296.000 lanpostutik gora.

2.3 b) taulan ikus daitekeenez, biztanle gehien dauzkaten udalerriak dira, era berean, bestelako sektoreetako zerbitzuak biltzen dituztenak; hala nola, merkataritza, garraioa eta ostalaritza; administrazio publikoa, osasuna eta hezkuntza. Guzti-guztiak daude Ahalmen Handiko Sarearen eraginpeko eremuan.

Aldi berean, biztanleria eta zerbitzuak udalerri desberdinetan metatzeak eragina du bide-

sarearen trafiko-ereduan, bidaiak erakartzeko eta sortzeko gune nagusiak baitira. Ordainpeko bideak hiri-antolaketan izaten ari diren papera aipatu behar da, biztanle-gune handien arteko komunikazioa ahalbidetzen baitute eta biztanle-gune horiek baitira merkataritza eta ostalaritza metatzen dituzten tokiak. Udalerririk horien eta lurraldeko gainerako eremuen arteko komunikazioa seguruagoa eta erosoagoa da Ahalmen Handiko bide-sareari esker.

Honako atal hauetan, sektoreak banaka aztertuko dira.

2.3. b) taula **Biztanleria gehiagoko udalerriak eta establezimendu-kopurua, jarduera-sektoreen arabera (2021)**

Iturria: Eustat

Ordena	Biztanleria (biz.)		Establezimendu-kopurua							
			Guztizkoak		Merkataritza, garraioa eta ostalaritza		Industria, energia eta saneamendua		Adm. publikoak, osasuna eta hezkuntza	
1	Bilbo	342.810	Bilbo	32.081	Bilbo	10.814	Bilbo	923	Bilbo	4.276
2	Barakaldo	98.055	Getxo	5.886	Barakaldo	2.464	Barakaldo	203	Getxo	909
3	Getxo	77.530	Barakaldo	5.863	Getxo	1.837	Zamudio	180	Barakaldo	537
4	Portugalete	46.274	Basauri	2.792	Basauri	1.318	Mungia	158	Portugalete	291
5	Santurtzi	45.651	Portugalete	2.488	Portugalete	1.128	Basauri	152	Durango	289
6	Basauri	40.882	Santurtzi	2.397	Santurtzi	1.058	Zornotza	136	Leioa	237
7	Leioa	30.904	Leioa	2.315	Leioa	927	Galdakao	136	Santurtzi	228
8	Durango	29.295	Erandio	2.079	Galdakao	902	Erandio	131	Basauri	217
9	Galdakao	29.361	Galdakao	2.031	Erandio	835	Trapagaran	126	Mungia	191
10	Sestao	27.311	Durango	1.920	Durango	718	Getxo	115	Erandio	185
11-112	Gainerakoak	376.050	Gainerakoak	28.314	Gainerakoak	10.664	Gainerakoak	2.469	Gainerakoak	2.681
BIZKAIA	1.144.123		88.166		32.665		4.729		10.041	


a) Merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-sektorea

2021ean, 32.665 establezimenduk daukate zerikusia merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-sektorearekin, eta 119.664 laguni ematen diete lana, aurreko urtean baino % 2,2 gutxiagori.

Eskualdeen arabera, establezimendu-kopururik handiena Bilboko Metropoliaren Eremuan dago, eta ondoren Durangaldean. 100 biztanleko batez besteko establezimenduen ratioa 2,9koa da, Bizkaiko eskualde guztien antzera.

Udalerraren neurriaren arabera, ratorik handiena 1.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerrietan eta hiriburuetan dago. Ratorik txikiena udalerri txikiagoetan dago, 1.000 biztanletik beherakoetan.


Honako udalerri hauek kontzentratzen dute sektore hau: Bilbo, Barakaldo, Getxo, Basauri, Portugalete, Santurtzi, Leioa, Galdakao, Erandio eta Durango (biztanleria gehien dutenak dira).



Sektoreko establezimendu gehien dauzkaten udalerriak (2021)

Iturria: Eustat

b) Industria-, energia- eta saneamendu-sektorea



Sektoreko establezimendu gehien dauzkaten udalerriak (2021) Iturria: Eustat

Sektore honekin loturiko establezimenduak, guztira, 4.729 dira 2021ean, eta 68.310 laguni ematen diete lana, aurreko urtean baino % 2,8 gutxiagori.

Eskualdeen arabera, establezimendu-kopururik handiena Bilboko Metropoliaren Eremuan dago, eta ondoren Durangaldean.

Alabaina, eskualde bakoitzeko biztanleriari dagokionez, sektore honetako establezimenduen kopururik handiena, 100 biztanleko, Durangaldean eta Arratia-Nerbioin dago, non batez beste 0,82ko balioa lortzen den 100 biztanleko. Metropoliaren Eremuak erregistratzen du baliorik txikiena (0,35). Bizkaiko batez besteko balioa 0,41 establezimendukoa da 100 biztanleko.

Biztanleriaren arabera, ratio handiena 1.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerriek dute; horietan, tasa 1,25 establezimendukoa da 100 biztanleko. Halaber, 1.000 biztanletik beherakoek (0,70) ere ratio handia dute. Ratorik txikiena 50.000 - 100.000 biztanleko udalerrietan dago, bizitegi-izaeratik hurbil daudenetan (0,18).

Udalerrien arabera, hona hemen sektorea metatzen dutenak: Bilbo, Barakaldo, Zamudio, Mungia, Basauri, Amorebieta-Etxano, Galdakao, Erandio, Trapaga eta Getxo, horiek guztiak Ahalmen Handiko Sarearen eraginpeko eremuan.

c) Administrazio publikoaren, hezkuntzaren eta osasunaren sektorea


Sektore honekin loturiko establezimenduak, guztira, 10.041 dira 2021ean, eta 108.803 laguni ematen diete lana. Azken urtean, % 1,2 egin du gora lanpostuen kopuruak, 2020ko datuekin alderatuta.

Eskualdeen arabera, sektoreko establezimendu gehien Metropoliaren Eremuan daude; ondoren, Durangaldea eta Mungialdea datoz.

Bizkaiko batez besteko ratioa 0,88 establezimendukoa da 100 biztanleko, eta gutxienekoa Arratia/Nerbioi eskualdean erregistratzen da (0,69 establezimendu 100 biztanleko).

Biztanleriaren arabera, ratorik handiena hiriburuan (>100.000 biztanle) eta 1.000 biztanletik beherako udalerrietan dago, non tasa

1,2 establezimendu ingurukoa den 100 biztanleko. Ratorik txikiena 20.000 - 50.000 biztanleko udalerrietan dago (0,64). Udalerrien arabera, honako udalerri hauetan metatzen da establezimendu-kopururik handiena: Bilbo, Getxo, Barakaldo, Portugalete, Durango, Leioa, Santurtzi, Basauri, Mungia eta Erandio.



Sektoreko establezimendu gehien dauzkaten udalerriak (2021)

Iturria: Eustat

2.4. JOAN-ETORRIETAKO SEGURTASUNA

Errepideetan gertatzen diren istripuek oihartzun handia izaten dute gizartean, eta osasun publikoko arazotzat hartzen dira.

Euskal Estatistika Erakundeak argitaratu dituen azken estatistika-datuen arabera, 2020an, trafikoko istripuak izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoan 20 eta 29 urte bitarteko gazteak hiltzeko bigarren kausa, eta hirugarrena 10 eta 19 urte bitarteko adin-tartean.

Trafiko-istripuek ondorio txar ugari dauzkate, ikuspegi sozial eta ekonomikotik begiratuta. Hala, zaurituak uzten dituen istripu bat gertatzen den aldi orotan, ez da zaurituaren kostua bakarrik kontuan hartu behar, gastu materialei edo ospitaleko, errehabilitazioko, laneko bajako, ezintasuneko eta abarreko gastuei dagokienez, biktimaren familiarentzat eta gizartearentzat dakarren hondamena ere aintzat hartu behar da-eta.

Bizkaiko errepideetan, 2020an, guztira 2.619 istripu erregistratu ziren, aurreko urtean baino % 25 gutxiago. Horietatik, 911 istriputan biktimak egon ziren (Euskadin erregistratutako guztizkoen % 46,5), aurreko urtean baino % 24,9 gutxiago (biktimadun 1.213 istripu egon ziren).

Aztergai ditugun azpiegituren segurtasuna eta Bizkaiko gainerako bideen segurtasuna erkatzeko asmoz, ezbehartzat hartzen dira hirigunetik

kanpora gertatzen direnak: 2020an, 730 istriputan izan ziren biktimak, eta, 2019an, 975. Guztira, 1.049 biktima erregistratu ziren: 8 hildako, 71 zauritu larri eta 970 zauritu arin.⁽³⁾

Bizkaiko Foru Aldundiak 2020rako argitaratutako "Bizkaiko errepideetako trafikoaren bilakaera" dokumentuaren arabera, Bizkaiko bide-sarea bost kategoriatan zatitzen da:

- Lehentasunezko Sarea (Gorria), 2020an mugikortasun globalaren % 57,5 hartzen zuena eta 243,1 km luze dena;
- Oinarrizko Sarea (Laranja), mugikortasunaren % 26,7 inguru hartzen zuena eta 208,9 km luze dena;
- Sare Osagarria (Urdina), 32,4 km luze dena eta mugikortasun osoaren % 3,2 hartzen zuena;
- Eskualdeko Sarea (Berdea), 209,7 km luze dena eta mugikortasunaren % 6,2 hartzen duena, eta, azkenik,
- Tokiko Sarea (Horia), mugikortasunaren % 6,4 kudeatzen duena eta 579,4 km luze dena.

Lehentasunezko Sarean (Gorria), Oinarrizkoan (Laranja) eta Osagarrian (Urdina), autobideak, autobideak eta galtzada bikoitzeko errepide-tarteak aparte aztertzen dira, Ahalmen Handiko Sare gisa. Sare horren barruan daude honako hauek: AP-8a (Usansolo – Gipuzkoarekiko muga), MHS eta Artxandako Tunelak.

2.4.1. BIDE-SAREKO ISTRIPUEN ANALISIA

Hurrengo taulan, biktimak, zaurituak eta hildakoak utzi dituzten istripuen kopurua ageri da, bide-sare motaren arabera.

Atal honetan, analisirako erabili diren istripuei buruzko datuak Eusko Jaurlaritzak argitaratutako "Euskadiko trafiko-istripuei buruzko 2020ko estatistika-urtekaria" delakotik atera dira.

Lehentasunezko sarean izan dira zauritudun istripu gehienak (288), ezbehartzen guztien % 39,5 eta biktimen % 42,0 (441).

Horietatik, Ahalmen Handiko bideetan 202 istripu eta 307 biktima erregistratu dira guztira.

Alabaina, istripuei buruzko datuak bide-sareen artean konparatzeko modukoak izan daitezen, azpiegituren segurtasunari buruzko analisiak bestelako aldagaiak izan behar ditu kontuan; hala nola, sarearen luzera edo bertatik igarotzen den zirkulazioa. Horretarako, oinarrizko istripu-adierazleak kalkulatzeko dira; besteak beste, arrisku-tasa (AT) eta heriotza-tasa (HT).

³Euskadiko trafiko-istripuei buruzko 2020ko estatistika-urtekaria. Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila

2.4.1.a) taula

Istripuen banaketa, bide-sare motaren arabera. 2020

Bide-sarea (GUZTIRA)	Luzera (km)	Biktimadun istripuak		Biktimak				
		BI	%	Hildakoak	Larriak	Arinak	Guztira	%
Lehentasunezko Sarea (gorria)	243,1	288	39,5	1	27	413	441	42,0
Oinarritzko Sarea	208,9	176	24,1	6	19	235	260	24,8
Sare Osagarria	32,4	50	6,8	0	3	63	66	6,3
Eskualdeko Sarea	209,7	95	13,0	0	10	123	133	12,7
Tokiko Sarea	579,4	102	14,0	1	11	112	124	11,8
Beste batzuk		19	2,6	0	1	24	25	2,4
GUZTIRA	1.273,5	730	100	8	71	970	1.049	100

Ahalmen Handiko Sarea	Luzera (km)	Biktimadun istripuak		Biktimak				
		BI	%	Hildakoak	Larriak	Arinak	Guztira	%
Lehentasunezko Sarea (gorria)	148,6	202	69,2	0	11	296	307	70,7
Oinarritzko Sarea	60,0	79	27,0	0	3	109	112	25,8
Sare Osagarria	4,8	11	3,8	0	0	15	15	3,5
GUZTIRA	213,4	292	100	0	14	420	434	100

Indizeak kalkulatzeko, honako formula hauek erabiltzen dira:

$$I_P = \frac{N_P \cdot 10^8}{365 \cdot L \cdot IMD}$$

$$I_M = \frac{M \cdot 10^9}{365 \cdot L \cdot IMD}$$

Non hauexek diren:

L = Azterturiko tartearen luzera

IMD = Tarte horrekin lotutako urteko batez besteko ibilg./egun (euskaraz, EBI)

N_P = Biktimadun istripu-kopurua

M = hildakoak

G = biktima larriak

Aurreko formulako izendatzailea (365 x L x IMD) tartearen mugikortasuna da, ibilgailu/km/urteetan neurtuta.

I_P espresioaren bidez, ehun miloi ibilgailuko eta km/urteko biktimak uzten dituzten istripuen kopurua adierazten da; I_M espresioak, berriz, mila miloi ibilgailuko eta km/urteko hildakoak uzten dituzten istripuen kopurua adierazten du.

Bizkaiko bide-sarearen batez besteko mugikortasuna 2020an 3.753,3 MM ibil.-km/urtekoa izan zen, non Lehentasunezko Sareak 2.558,93 MM ibil. hartzen baititu km-ko eta urteko.

Bide-sarearen 2020ko batez besteko arrisku-tasa (AT) 19,4koa izan zen, eta, bertan, Ahalmen Handikoak 11,4ko arrisku-tasa zeukan, ohiko sarearen aurrean (36,7ko tasa). Balio gorena Sare Osagarrian (urdina) (51,1eko ATa) eta Tokiko Sarean (horia) (42,6ko ATa) dago.

Bide-sare osorako kalkulatu den batez besteko heriotza-tasa 2,1ekoa da. Aurreko kasuan bezalaxe, nabarmen egiten du behera Ahalmen Handiko Sarean (0), ohiko sarean erregistratutako 6,7koaren aurrean.


Horrek esan nahi du Bizkaiko errepide-sareko ahalmen handiko bideak (autobideak, autobiak eta aparteko galtzadak dituzten errepideak) lagungarriak direla segurtasuna handiagoa izan dadin, errepide arrunten aldean; izan ere, errepidera sartzen direnen kopurua mugatzen da, eta, ondorioz, baita gatazka piztu dezakeen trafikoa ere. Halaber, haren ezaugarri teknikoak bide-sareko gainerako bideenak baino handiagoak dira.

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

Horren ondorioz, ezbehar-kopurua txikiagoa da, bertatik ibiltzen diren ibilgailuen mugikortasuna kontuan hartuta.

Gipuzkoarekiko muga artean, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea eta Artxandako Tunelak), Bizkaiko Ahalmen Handiko Sareko batezbestekoetatik beherako kopuruak ageri dira (2020).

Parametro horiek ordainpeko autobideetan kalkulatu gero (AP-8a Usansolo eta



2.4.1 b) taula **Arisku- eta heriotza-tasa, bide-sare motaren arabera. 2020**

Bizkaiko bide-sarea (GUZTIRA)	Luzera (km)	EBI (ibil./eg.)	Mugikortasuna Ibil. kop.-km/urte (MM)	IB	Biktimak		Adierazleak	
					Hildakoak	Larriak	AT	HT
Lehentasunezko Sarea (gorria)	243,1	24.325	2.158,4	288	1	27	13,3	0,46
Oinarrizko Sarea	208,9	13.165	1.003,8	176	6	19	17,5	5,98
Sare Osagarria	32,4	10.060	119,0	50	0	3	42,0	-
Eskualdeko Sarea	209,7	3.038	232,5	95	0	10	40,9	-
Tokiko Sarea	579,4	1.133	239,6	102	1	11	42,6	4,17
Beste batzuk				19	0	1		
Bide-sarea GUZTIRA	1273,5	8.075	3.753,3	730	8	71	19,4	2,1

Ahalmen Handiko Sarea	Luzera (km)	EBI (ibil./eg.)	Mugikortasuna Ibil. kop.-km/urte (MM)	IB	Biktimak		Adierazleak	
					Hildakoak	Larriak	AT	HT
Lehentasunezko Sarea (gorria)	148,6	34.420	1.866,91	202	0	11	10,82	-
Oinarrizko Sarea	60,0	29.653	649,40	79	0	3	12,17	-
Sare Osagarria	4,8	24.327	42,62	11	0	0	25,81	-
Ahalmen Handiko Sarea GUZTIRA	213,4	32.852,7	2.558,93	292	0	14	11,4	-

Bidesaridun autobiak	Luzera (km)	EBI (ibil./eg.)	Mugikortasuna Ibil. kop.-km/urte (MM)	IB	Biktimak		Adierazleak	
					Hildakoak	Larriak	AT	HT
AP-8 (Usansolo – Gipuzkoa)	30,92	25.756	316,9	23	0	2	7,9	0,0
MHS	15,5	9.003	50,93	4	0	0	7,9	0,0
Artxandako Tunelak (bidesaridunak bakarrik)	3,5	14.236	13,348	0	0	0	0,0	0,0



3. Mugikortasunaren eta trafikoaren bilakaeraren analisia

3.1. TRAFIKOA ETA TARTEEN ARABERAKO BANAKETA. 2021. URTEA

3.1.1. HAZTATURIKO BATEZ BESTEKO INTENTSITATEA. IBILGAILU MOTAREN ARABERAKO OSAKETA

3.1.1.1. AP-8 autobidea: Usansolo – Gipuzkoarekiko muga

Trafikoaren haztaturiko batez besteko intentsitatea, El Gallo/Urgoiti – Gipuzkoarekiko mugako tartean eta 2021. urtean, eguneko 31.406 ibilgailukoa izan da, egunero 3.779 ibilgailu astunekin; horrenbestez, ibilgailu astunen batez besteko osaketa % 12,0koa izan da. (Ikus 3.1.2.1.a) taula).

Tarifen aldetik, bi ibilgailu astun mota bereizten dira:


- **Astunak 1:** Pneumatiko bikoitzeko atoaia duten turismoak eta furgonetak, eta 3 ardatzera arteko kamioiak eta autokarrak.
- **Astunak 2:** 2 ardatzeko edo gehiagoko atoaia duten turismoak eta furgonetak, eta lau ardatzeko edo gehiagoko kamioiak eta autokarrak.

Honako taula eta grafiko hauetan, haztaturiko batez besteko trafikoaren osaketa ageri da, ibilgailu motaren arabera bereizita:

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

Batez besteko trafikoaren banaketa, ibilgailu motaren arabera. 2021. urtea

Ibilgailu mota	Ibilg./egun	%
Arinak	27.627	88,0
Astunak 1	1.315	4,2
Astunak 2	2.464	7,8
GUZTIRA	31.406	100,0



2020arekin alderatuta, ibilgailuen joan-etorriek gora egin dute, COVID-19aren osasun-pandemiak mugikortasunari ezarritako mugaketek izugarri eragin baitzioten trafikoari.

Guztizko ibilgailuen batez besteko trafikoa areagotu egin da 2020an erregistratutakoarekin alderatuz gero; hain zuzen ere, egunean 5 mila ibilgailu gehiago ibili dira. Halere, osasun-pandemia baino lehen erregistratutako trafikoaren azpitik gaude oraindik ere: 2019an,

AP-8 autobideak 35.343 ibilgailu erregistratu zituen, batez beste, eguneko.

Mugikortasuna murrizteko neurriek ibilgailu arinei eragin zieten gehien iaz, baina, aurren, 5.200 ibilgailutan egin dute gora eguneko. Halere, 2019an erregistratutakoak baino % 11,1 gutxiago izan dira. Ibilgailu astunen trafikoa, aldiz, pandemiaren aurretik erregistratutakoaren antzekoa izan da.

3.1.1.2. Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean, haztaturiko batez besteko egun bateko intentsitatea, 2021. urtean, eguneko 10.646 ibilgailukoa izan da, egunero 3.061 ibilgailu astunekin; horrenbestez, ibilgailu astunen batez besteko osaketa % 28,8koa izan da. (ikus 3.1.2.2.a) taula).


Usansolo – Gipuzkoarekiko muga tartean bezala, tarifen aldetik, bi ibilgailu astun mota hartu dira kontuan:

- **Astunak 1:** Pneumatiko bikoitzeko atoa duten turismoak eta furgonetak, eta 3 ardatzera arteko kamioiak eta autokarrak.
- **Astunak 2:** 2 ardatzeko edo gehiagoko atoa duten turismoak eta furgonetak, eta lau ardatzeko edo gehiagoko kamioiak eta autokarrak.

Honako taula eta grafiko hauetan, haztaturiko batez besteko trafikoaren osaketa ageri da, ibilgailu motaren arabera bereizita:

Batez besteko trafikoaren banaketa, ibilgailu motaren arabera. 2021. urtea

Ibilgailu mota	Ibilg./egun	%
Arinak	7.585	71,3
Astunak 1	479	4,5
Astunak 2	2.581	24,2
GUZTIRA	10.646	100



AP-8an bezalaxe, guztizko ibilgailuen batez besteko trafikoak 1.600 ibilgailutan baino gehiagotan egin du gora eguneko, baina ez dira pandemiaren aurretiko balioak berreskuratu.

ibilgailu astunen trafikoan, 2021ean erregistratutako kopuruak 2019koen oso antzekoak dira: 3.061 ibilgailu eguneko (guztizkoaren % 28,8), 2020an erregistratutakoa baino % 12,8 gehiago.

Horietatik, azpiegitura hau erabiltzen duten II. motako ibilgailu astunen ehunekoa askoz handiagoa da Artxandako Tuneletan edo AP-8an erregistratutakoa baino. Izan ere, Hegoaldeko Irtenbidetik ibiltzeko debekuak gehienez ere 3,5 tonako zama eraman dezaketen kamioiei eragiten die, eta Hegoaldeko Saihesbidea erabili behar dute. Hala ere, debeku horrek ez dio eragiten ibilgailu astunen kopuru handi bati (6 eta 7 m bitarteko luzera dutenei), ezta autobusei ere, eta horiek Hegoaldeko Irtenbidea erabiltzen jarraitzen dute, bidesariaren disuasio-izaera dela eta.


3.1.1.3. Artxandako Tunelak

Artxandako Tuneletan haztaturiko batez besteko eguneko intentsitatea, Txorierriko ordainlekuaren hesian erregistratutako datuetan oinarrituta, 18.517 ibil./egunekoa izan da 2021ean, eta horien % 3,4 ibilgailu astunak izan dira (627 ibil./eg.).

Honako taula eta grafiko hauetan, haztaturiko batez besteko trafikoaren osaketa ageri da, ibilgailu motaren arabera bereizita:

Batez besteko trafikoaren banaketa, ibilgailu motaren arabera. 2021. urtea

Ibilgailu mota	Ibilg./egun	%
Turismoak eta motozikletak	16.923	91,4
2 ardatzeko (4 gupil) industria-ibilgailuak	967	5,2
Autokarrak eta kamioiak	627	3,4
GUZTIRA	18.517	100



Txorierriko ordainlekuko ibilgailuen joan-etorriek gora egin dute 2020ko datuekin alderatuta, egunean 4 mila ibilgailutik gorako aldearekin; hau da, % 30,1eko batez besteko igoera egon da. Dena dela, 2019an pandemia baino lehen erregistratutako balioen azpitik gaude oraindik.

Horietatik, Txorierri – Salbe tunelak 3 mila ibilgailu gehiago izan ditu egunean, eta Salbe – Ugasko tunelak 1.200 inguru gehiago.

Ibilgailu astunei dagokienez, AP-8an eta MHSn bezalaxe, igoera txikiagoa izan da, egunean 100 ibilgailu astun gehiagokoa (% 17,6).

Hortaz, batez beste, guztizko trafikoaren % 3,4 osatzen dute ibilgailu astunak.

3.1.2. TRAFIKOAK TARTEEN ETA LOTURA-ADARREN ARABERA DUEN BANAKETA

3.1.2.1. AP-8 autobidea: Usansolo – Gipuzkoarekiko muga

3.1.2.1 grafikoan eta tauletan, autobidearen enborreko tarteetako trafikoaren banaketa ageri da, baita lotura-adarren partaidetza ere, 2021ari dagokionez.

Erletxe – Boroa Mendebaldea tartearen eguneko intentsitatea 43.010 ibilgailukoa da eguneko; Ermua – Gipuzkoarekiko mugako tartean, berriz, 19.772koa da.

lurretako enborreko hesia zeharkatzen duen trafikoak 24.455 ibilg./egunekoak izan da 2021ean (ibilgailu astunak % 12,6 izan dira; guztira, 3.093 ibilgailu astun eguneko). 2020an erregistratutako % 23,8ko balioekin alderatuta, igoera egon da ibilgailuetan oro har (4.697 ibil. gehiago egunean), eta % 10,7ko igoera ibilgailu astunetan (egunean 299 ibilgailu gehiago).



Zirkulazio-noranzkoari begiratuz gero, Gipuzkoarako noranzkoan zertxobait handiagoa da, guztizko ibilgailuei dagokionez.

Egunean, 19.772 ibilgailuk zeharkatzen dute Gipuzkoarekiko muga, eta horien % 18,5 astunak dira. Aurreko urtearekin alderatuta, batez besteko trafiko hori igo egin da: egunean, 3000 ibilgailu gehiago. Halere, erregistroak 2019an erregistratutako trafikotik oso behera daude (23.241 ibilgailu eguneko).

Gipuzkoarekiko muga egunean zeharkatzen duten 19.772 ibilgailu horien % 8,5 Ermuarekiko erlazioak dira; % 9,5 Abadiñorekiko erlazioak dira, eta % 7,1 lurreta Ekialdearekikoak dira. Hortaz, gainerako % 74,9k Bilbo eta Metropoliaren Eremuarekiko erlazioetan zeharkatzen dute lurretako enborreko hesia.

Ibilgailu astunei dagokionez, Gipuzkoako muga egunean zeharkatzen duten 3.650 ibilgailuetatik % 12,3 Abadiñorekiko erlazioak izan dira, 2012an abian jarri zen lotura berriaren bidez; % 9,3 Ermuarekiko erlazioak dira, eta % 10,6 lurreta Ekialdearekiko erlazioak dira. Beraz, gainerako % 67,8k ibilbide luzeko trafiko gisa zeharkatzen dute lurretako enborreko hesia (2.475 ibil./egun).

Gipuzkoarekiko muga zeharkatzen duen trafikoaren erlazioak



lurretatik mendebalderantz, autobidearen enborreko trafikoa areagotu egiten da sistema irekiko lotura-adarretako trafiko-ekarpenen bidez.

Autobidearen enborreko trafikoa 43.010 ibilg./egunekoa da (astunak: % 9,9) Erletxe – Boroa Mendebaldea tartean: lurreta Mendebaldean, 11.129 ibilg./egun; Amorebieta Ekialdean, 2.905 ibilg./egun; Boroa Ekialdeko loturan, 956 ibilg./egun; eta Boroa Mendebaldeko loturan, 11.288 ibilg./egun.

2021ean, eguneko batez besteko trafikoak gora egin du autobidearen tarte guztietan: guztizko ibilgailuetan, hazkunde-tasa % 21,9koa izan da, eta ibilgailu astunena % 11,6koa.

2020an, Erletxeko eta Boroa Mendebaldeko loturen arteko tarteak izan zuen jaitsierarik handiena, 2019an baino 12 mila ibilgailu gutxiago erregistratu baitziren eguneko. Aurtan, egunean 7 mila ibilgailu gehiago erregistratu dira egunean; hots, guztizko ibilgailuen hazkunde-tasa % 20,0koa izan da.

Alabaina, tarte horretako trafikoa pandemia baino lehen erregistratutakoa baino % 11,3 txikiagoa da.


N637 errepideak edo Txorierriko korridoreak ere mugikortasun-mugaketan eragin handia jasan zuen, baina trafikoaren zati bat berreskuratu du. Hala, 2021ean, batez beste 4.600 ibilgailu gehiago ibili dira Txorierri Ekialdeko (lurreta – Gipuzkoa) eta Txorierri Mendebaldeko loturretatik, aurreko urtearekin alderatuta. Multzoan hartuta, bi loturek 32.052 ibilgailuko guztizko trafikoa erregistratu dute egunean, baina balio hori 2019an egunean erregistratutako 36.804 ibilgailuetatik urrun dago. Ibilgailu arinen trafikoa jaitsi izanak eragin du alde hori, ibilgailu astunak 2019ko antzeko balioak izan baitituzte.

El Gallo/Urgoitiren eta Erletxeren arteko autobidearen enborreko trafikoa 33.682 ibilgailukoa da eguneko, eta horien % 10,0 ibilgailu astunak dira. Aurreko urtean erregistratutakoa baino % 21,4 handiagoa da trafikoa, balio osoetan hartuta. El Gallo/Urgoitiko loturak 18.656 ibilgailu ekartzen ditu Bilborako noranzkoan, eta 7.945 ibilgailu Txorierri/Gipuzkoarako noranzkoan, egunean. Hurrenez hurren, ibilgailu astunen tasak % 10,2koa eta % 10,5koa dira.



3.1.2.1 grafikoa

Trafikoaren banaketa AP-8 autobidean. 2021




3.1.2.1 a) taula


Trafikoaren banaketa AP-8ko enborrean, tarteen eta ibilgailu motaren arabera Urteko ohiko eguneko ibilgailuak. 2021

Tarteak	Luzera (km)	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztira		
					EBI	Astunak	% Astunak
Urgoiti – Erletxe	2,47	30.320	1.382	1.980	33.682	3.362	10,0
Erletxe-Boraa Mendebaldea	3,13	38.745	1.758	2.507	43.010	4265	9,9
Boraa Mendebaldea - Boraa Ekialdea	1,14	28.397	1.236	2.089	31.722	3.325	10,5
Boraa Ekialdea - Amorebieta Ekialdea	2,56	29.245	1.274	2.158	32.677	3.432	10,5
Amorebieta Ekialdea - Iurreta	8,20	31.844	1.388	2.352	35.584	3.740	10,5
Iurreta – Abadiño	3,5	28.620	1.490	2.945	33.055	4.435	13,4
Abadiño - Ermua	7,52	20.069	1.082	2.596	23.747	3.678	15,5
Ermua - LHM (Gipuzkoa)	2,40	16.122	978	2.672	19.722	3.650	18,5
GUZTIRA	30,92	27.627	1.315	2.464	31.406	3.779	12,0

Trafikoaren banaketa, tarteen eta ibilgailu motaren arabera



Konparazio-analisia, tarteen arabera (2020-2021eko hazkundearen %a)




AP-8a kopuruetan, 2021. urtea


3.1.2.1 b) taula

Trafikoa loturetan eta ordainlekuko hesietan


Tartea	Kontrol-sistema	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztira		
					EBI	Astunak	Astunen %a
Urgoiti Mendebaldea	ADAR ASKEAK	16.753	780	1.123	18.656	1.903	10,2
Urgoiti Ekialdea	ADAR ASKEAK	7.114	336	495	7.945	831	10,5
Txorierri	ADAR ASKEAK	10.166	482	714	11.362	1.196	10,5
Erletxe E.	ADAR ASKEAK	18.592	858	1.240	20.690	2.098	10,1
Boroa M.	SISTEMA IREKIA	10.349	522	417	11.288	939	8,3
Boroa E.	ADAR ASKEAK	849	38	69	956	107	11,2
Amorebieta E.	ADAR ASKEAK	2.599	113	193	2.905	306	10,5
Iurreta M.	SISTEMA IREKIA	10.483	436	210	11.129	646	5,8
Iurretako hesia	SISTEMA ITXIA	21.362	952	2.141	24.455	3.093	12,6
Iurreta E.	SISTEMA ITXIA	7.259	537	804	8.600	1.341	15,6
Abadiño M.	SISTEMA ITXIA	11.719	591	723	13.033	1.314	10,1
Abadiño E.	SISTEMA ITXIA	3.169	182	374	3.725	556	14,9
Ermua M.	SISTEMA ITXIA	5.290	242	122	5.654	364	6,4
Ermua E.	SISTEMA ITXIA	1.343	139	199	1.681	338	20,1



SISTEMA ITXIA



SISTEMA IREKIA



ADAR ASKEAK

3.1.2.2. Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea

Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea tarteko eguneko intentsitatea 11.927 ibilgailukoa da eguneko; Ortuella – Santurtzi Ekialdea tartean, berriz, 8.148koa da, bi noranzkoak aintzat hartuz gero. Urte honetan haztaturiko batez besteko intentsitatea 10.646 ibilgailukoa izan da eguneko, eta ibilgailu astunen ehunekoa % 28,8koa izan da (3.061 ibilg./egun). 2020an erregistratutako balioekin alderatuta, guztizko ibilgailuek % 18,3ko igoera izan dute, eta ibilgailu astunek % 12,8koa.

Saihesbidea zerbitzuan jarri zenetik, noranzkoen araberako banaketa ez da orekatua; hau da, Gipuzkoarako noranzkoan, Kantabriarako noranzkoan baino trafiko handiagoa dago; beraz, interesgarria da fluxuak zirkulazio-noranzkoen arabera bereiztea.

Gipuzkoarako noranzkoan, guztira, 2021ean, 6.011 ibilgailukoa izan da haztaturiko batez besteko balioa eguneko; hots, trafiko osoaren % 56,5. Kantabriarako noranzkoak, berriz, batez beste, 4.636 ibilgailuko trafiko haztatua du eguneko; hau da, trafiko osoaren % 43,5.

2020an, mugikortasun-mugaketek gehien ukitu zuten noranzkoa Gipuzkoaranzkoa izan zen; batez ere, ibilgailu arinen trafikoak behera egin zuelako (-% 34,0), eta, Kantabriarako noranzkoan, batezbesteko trafikoak -% 26,0 egin zuen behera.

Aurten, trafikoak 2020tik hona gora egin duen arren (+% 16,5 Kantabrianantz, eta +% 19,6 Gipuzkoarantz), 2016ko antzeko balioak erregistratu dira; hau da, 2019an baino 1.800 ibilgailu gutxiago egunean.

Iaz, Trapagaran – Bilbo Hegoaldea (Gipuzkoarantz) loturen arteko tarteak izan zuen trafikoaren jaitsierarik handiena. Aurten, baina, igoerarik handiena erregistratu du (+% 20,1), batez beste 2019an baino 1.100 ibilgailu gutxiago ibiltzen badira ere egunean.

Santurtziko loturaren eta Ortuellakoaren (Kantabriarako noranzkoa) arteko tarteak izan du trafiko gutxien (3.365 ibilgailu egunean); baina, aurreko urtearekin alderatuta, +% 15,0ko hazkundea izan du.

Ibilgailu astunei dagokienez, Gipuzkoarako noranzkoan haztaturiko batez besteko trafikoa 1.621 ibilgailu astunekoa izan da egunean (ibilgailu astunen trafikoaren guztizkoaren % 53,0), eta, aurreko urteko datuekin konparatuta, % 13,8ko igoera egon da. Kantabriarako noranzkoan, batez beste, 1.440 ibilgailu astun ibiltzen dira egunean (astunen trafikoaren % 47,0); 2020arekin alderatuta, balioa % 11,7 igo da. Bi kasuetan, erregistratutako trafikoa 2019koa (pandemia baino lehenagokoa) baino zertxobait handiagoa da.

Gipuzkoarako noranzkoa zehazki aztertuz gero, MHSko enborrean, ohiko egun bateko hasierako intentsitatea 4.783 ibilgailukoa da egunean, eta horien % 28,1 ibilgailu astunak dira, El Haya (Kantabriako muga) – San Fuentesetik datozenak.

Santurtziko loturatik 603 ibilgailuko ekarpena egiten da egunean; hots, Santurtziko L. – Trapagarango L. tarteko trafikoa 5.386 ibilgailukoa da eguneko.

Tarte horretatik aurrera, Ezkerralde (Trapagarango lotura) datozen ibilgailuak sartzen dira, eta guztizko trafikoan 917 ibil./eguneko ekarpena egiten du; ibilgailu astunak % 19,7 dira. Hala, hazi egin da autobidearen enborreko trafikoa; izan ere, 6.303 ibil./egunekoa da Trapagaran – Bilbo Hegoaldea loturen arteko tartean, eta ibilgailu astunak % 25,2 dira. Horixe da Ugarteko enborreko hesiaren parean Peñaskalerantz dabilen trafikoa.

Bilbo Hegoaldeko loturatik aurrera, autobidearen enborreko trafikoa, batez beste, 6.443 ibil./egunekoa da, eta ibilgailu astunak % 29,9 dira A-8 autobiderako irteeran, Bilbo Ekialdeko loturan.

MHS-tik Bilboko Ekialdeko loturaren bidez irteten diren ibilgailu guztien % 13,2 Bilbo Hegoaldeko loturaren bidez sartzen dira; % 18,6 Ezkerralde (Santurtzi eta Trapagarango loturak), eta % 68,2 El Haya-San Fuentesetik datoz, ibilbide luzeko pasoko trafiko gisa.

Kantabriarako noranzkoan, Bilbo Ekialdeko loturak 5.484 ibil./eguneko trafiko-bolumena erregistratzen da, eta ibilgailu astunak % 32,4 dira.

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea


Bilbo Hegoaldeko lotura gainditutakoan, autobidearen enborreko trafikoa pixka bat murrizten da, eta batez besteko balioa 4.734 ibilgailukoa da eguneko, ibilgailu astunak % 29,6 direla. Horiek Ugarteko enborreko hesia zeharkatzen dute Ezkerralderako eta Kantabriako mugarako noranzkoan.

Trapagarango loturatik mendebalderantz, hots, El Haya – San Fuenteserantz, autobidearen enborreko trafikoa nabarmen egin du behera, eta ohiko egun bateko guztizko balioa 3.906 ibilgailukoa izan da, ibilgailu astunak % 31,1 izanik Trapagarango loturaren eta Santurtziko loturaren artean. Azkenik, Santurtziko loturaren eta Ortuellako loturaren artean, Kantabriarako noranzkoan, 3.365 ibilgailu erregistratu dira egunean, ibilgailu astunak % 34,1 izanik.

Horrenbestez, Ugarteko enborreko hesia zeharkatzen duten ibilgailuen % 28,9 Santurtzira, Portugaletera eta Ezkerraldera bideratzen dira, eta gainerako % 71,1ek Kantabriarantz jarraitzen dute bidaia.

3.1.2.2 grafikoan eta tauletan, azpiegitura berriko tarte batzuetako eta besteetako trafikoaren banaketa ageri da, baita lotura-adarren ekarpenak ere, 2021a izanik erreferentzia.

3.1.2.2 grafiko



*④ Ezkerraldeko irteera: Santurtziko irteera + Trapagarango irteera


⁴Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidetik Santurtziko eta Trapagarango loturetarako irteerak ez dira modu independentean erregistratzen Ugarteko enborreko hesian. Hortaz, grafiko hau egiteko, sarreren proportzio berbera daukatela balioetsi da (sarrerak dagozkien ordainlekuko hesietan erregistratzen dira).

3.1.2.2 a) taula


Trafikoaren banaketa MHSko enborrean, tarteen, zirkulazio-noranzkoaren eta ibilgailu motaren arabera. Ibilg./ohiko egun. 2021

Tarteak	Luzera (km)	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztira		
					EBI	Astunak	Astunen %a
Bilbo Ekialdea - Bilbo Hegoaldea	4,10	3.707	315	1.462	5.484	1.777	32,4
Bilbo Hegoaldea - Trapagarango L.	7,15	3.335	198	1.201	4.734	1.399	29,6
Trapagarango L. – Santurtziko L.	2,25	2.690	163	1.053	3.906	1.216	31,1
Santurtziko L. – Ortuellako L.	2,00	2.219	128	1.018	3.365	1.146	34,1
Bilbo Ekiald - Ortuellako L. guztira	15,50	3.196	215	1.225	4.636	1.440	31,1
Ortuellako L. – Santurtziko L.	2,00	3.441	186	1.156	4.783	1.342	28,1
Santurtziko L. – Trapagarango L.	2,25	3.977	218	1.191	5.386	1.409	26,2
Trapagarango L. – Bilbo Hegoaldea	7,15	4.713	250	1.340	6.303	1.590	25,2
Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea	4,10	4.515	354	1.574	6.443	1.928	29,9
Ortuellako L. – Bilbo Ekiald guztira	15,50	4.390	265	1.357	6.011	1.621	27,0
MHS GUZTIRA	15,5	7.585	479	2.581	10.646	3.061	28,8

Trafikoaren banaketa, tarteen, ibilgailu motaren eta zirkulazio-noranzkoaren arabera



Konparazio-analisisa, tarteen eta zirkulazio-noranzkoen arabera (2020-2021eko hazkundearen %a)



AP-8a kopuruetan, 2021. urtea


3.1.2.2 b) taula

Trafikoa loturetan eta ordainlekuko hesietan (ibilg./egun)


SARRERAK	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztizkoak		
				EBI	Astunak	Astunen %a
Kantabria	3.441	186	1.156	4.783	1.342	28,1
Santurtzi	536	32	35	603	67	11,1
Trapagaran	736	32	149	917	181	19,7
Bilbo Hegoaldea	887	145	282	1.314	427	32,5
Bilbo Hegoald. Mendebaldea	428	17	21	466	38	8,2
Bilbo Hegoaldea Ekialdea	459	128	261	848	389	45,9
Bilbo Ekialdea	3.707	315	1.462	5.484	1.777	32,4

IRTEERAK	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztizkoak		
				EBI	Astunak	Astunen %a
Kantabria	2.219	128	1.018	3.365	1.146	34,1
Ezkeraldea (Trapagaran + Santurtzi)	1.116	70	183	1.369	253	18,5
Santurtzi	471	35	35	541	70	12,9
Trapagaran	645	35	148	828	183	22,1
Bilbo Hegoaldea	1.457	158	309	1.924	467	24,3
Bilbo Hegoald. Mendebaldea	657	24	27	708	51	7,2
Bilbo Hegoaldea Ekialdea	800	134	282	1.216	416	34,2
Bilbo Ekialdea	4.515	354	1.574	6.443	1.928	29,9

SARRERAK



IRTEERAK



3.1.2.3. Artxandako Tunelak

3.1.2.3 grafikoan eta tauletan, trafikoak tunel batzuetan eta besteetan izandako banaketa aurkezten da, 2021. urtea kontuan hartuta.


Txorierriko ordainleku-gunea egunean zeharkatzen duten 18.517 ibilgailuetatik, egunean 13.422 ibilgailuk Salbe – Txorierrirako tunela erabiltzen dute: Egunean 6.818 ibilgailuk (% 50,8) Bilbora sartzeko, eta egunean 6.604 ibilgailuk (% 49,2) Txorierrirako noranzkoan. 2020ko balioekin alderatuta, Salbe – Txorierrirako tunelaren urteko batez besteko trafikoa % 29,4 egin du gora. Bi noranzkoek antzeko igoera izan dute: gutxi gorabehera, 1.500 ibilgailu gehiago noranzko bakoitzean, eguneko. 2019arekin alderatuz gero, tunel horretako trafikoa pandemia baino lehen erregistratutakoa baino txikiagoa da (-% 6,8): -% 5,2 Bilborantz eta -% 8,4 Txorierrirantz.

Ugasko – Txorierrirako tunelak batez beste 5.095 ibilgailuko erregistroa dauka egunean. Haietatik egunean 2.516 ibilgailuk (% 49,4) Bilbora sartzeko erabiltzen dute tunela, eta egunean 2.579 ibilgailuk (% 50,6) Txorierrirako noranzkoan.

Horrek esan nahi du tunel bien arteko banaketa 75 / 25 dela, gutxi gorabehera.

Aurreko urteko datuekin alderatuta, tunel honetako urteko batez besteko trafikoa % 31,8 igo da: % 29,8 Ugaskorako noranzkoan, eta % 33,8 Bilbotik irteteko zirkulazioan; hau da, 1.229 ibil./eguneko igo da, bi noranzkoak batuta. Kasu honetan, 2021eko trafikoa 2019an pandemia baino lehen erregistratutakoa baino txikiagoa da; bereziki, Bilbora sartzeko noranzkoan (-% 7,3). Irteteko noranzkoan, berriz, trafikoak 2019ko balioak gainditu ditu (+% 4,5).

Salbe – Ugasko tunelaren eguneko batez besteko trafikoa 7.659 ibilgailukoa da. Horietatik egunean 3.808 ibilgailuk (% 49,7) Ugaskorako noranzkoan erabiltzen dute, eta egunean 3.851 ibilgailuk (% 50,3) Salberako noranzkoan. Tunel honetako urteko batez besteko trafikoa % 1,9 murriztu da 2020ko datuekin alderatuta: -% 1,3 Ugaskorako noranzkoan, eta -% 2,6 Salberako noranzkoan.






AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

3.1.2.3 a) taula

Trafikoaren banaketa Artxandako Tuneletan, tarteen arabera Urteko ohiko eguneko ibilgailuak. 2021 urtea

Tunela	Guztizkoak		Bilborantz		Txorierirantz	
	Ibil./eg.	%	Ibil./eg.	%	Ibil./eg.	%
Salbe – Txorierri (BI-626)	13.422	72,5	6.818	50,8	6.604	49,2
Ugasko – Txorierri (BI-627)	5.095	27,5	2.516	49,4	2.579	50,6
Txorierriko ordainleku-gunea	18.517	100,0	9.334	50,4	9.183	49,6

Tunela	Guztizkoak		Ugaskorantz		Salberantz	
	Ibil./eg.	%	Ibil./eg.	%	Ibil./eg.	%
Salbe – Ugasko (BI-625)	7.659	100,0	3.808	49,7	3.851	50,3



3.1.3. TRAFIKOAREN HILEKO ALDAKUNTZA

3.1.3.1. AP-8 autobidea: Usansolo – Gipuzkoarekiko muga

Hurrengo tauletan, Usansoloren eta Gipuzkoarekiko mugaren arteko tartean eguneroko batez besteko trafikoak hilean duen banaketa ageri da.

Guztizko ibilgailuen trafikoak, 2020ko datuak gaintitu dituen arren, pandemiaren aurretiko balioen azpitik jarraitzen du, ibilgailu arinek gutxiagotan erabiltzen dutelako azpiegitura hau. Hala, urtariletik maiatzera bitartean, ibilgailu arinen trafikoa 2019ko hilabete beretan erregistratutakoaren % 69-89 izan da, eta baliorik txikiena otsailean erregistratu da (% 68).

Ibilgailu arinen trafikoak ekainetik aurrera egin du gora, ohiko trafikoaren % 93-100eko tasak erregistratu baitira.

Baliorik handiena irailean erregistratu da (36.378 ibil. arin/eg.). 2021eko hileko trafikoa azaroan bakarrik izan da 2019an erregistratutakoa baino handiagoa.

Ibilgailu astunei dagokienez, aurtengo trafikoak pandemiaren aurretiko balioak gaintitu ditu; bereziki, ekainetik aurrera (urrian izan ezik), eta martxoan erregistratu da goreneko balioa (4.197 ibil. astunak/egun).

Trafikoa noranzkoen arabera banatzeari dagokionez, Bilbo – Gipuzkoa noranzkoan pixka bat handiagoa da, bai ibilgailu guztiei dagokienez, bai astunei dagokienez.

3.1.3.1 a) taula


Haztaturiko batez besteko trafikoaren hileko banaketa

Ibilg./egun. 2021 urtea



Hilabetea	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztizkoak			
				EBI	Astunak	Astunen %a	EBI (%)
Urtarrila	20.326	1.139	2.197	23.662	3.336	14,1	75,3
Otsaila	21.510	1.303	2.613	25.426	3.916	15,4	81,0
Martxoa	27.562	1.368	2.829	31.759	4.197	13,2	101,1
Apirila	25.082	1.234	2.485	28.801	3.719	12,9	91,7
Maiatza	27.063	1.314	2.496	30.873	3.810	12,3	98,3
Ekaina	30.742	1.391	2.786	34.919	4.177	12,0	111,2
Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen tarte osoak A zerbitzu-maila dauka, 2021. urtean erregistratutako datuen arabera.

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

ZERBITZU-MAILA		A	B	C	D	E
INTENTSITATEA (IS) (VI/h/c)	VL: 80 lm/h	560	880	1.280	1.760	2.240
	VL: 75 lm/h	525	825	1.200	1.650	2.100
Dentsitatea (DS) (VI/Km/c)		7	11	16	22	28

Tarteak	Luzera (km)	Abiad. askea (AA)	Kop. Erreia	EBI	Astunen %a	Fvp	IS (vl/h/c)	D (vl/km/c)	ZM
Bilbo Ekialdea - Bilbo Hegoaldea	4,10	78	3	5.484	32,4	0,755	269	3,4	A
Bilbo Hegoaldea - Trapagarango L.	7,15	78	3	4.734	29,6	0,772	227	2,9	A
Trapagarango L. – Santurtziko L.	2,25	80	2	3.906	31,1	0,763	284	3,6	A
Santurtziko L. – Ortuellako L.	2,0	80	2	3.365	34,1	0,746	250	3,1	A

Bilbo Ekialdea - Ortuellako L. guztira	15,50	79	3	4.636	31,1	0,763	247	3,1	A
---	--------------	-----------	----------	--------------	-------------	--------------	------------	------------	----------

Tarteak	Luzera (km)	Abiad. askea (AA)	Kop. Erreia	EBI	Astunen %a	Fvp	IS (vl/h/c)	D (vl/km/c)	ZM
Ortuellako L. – Santurtziko L.	2,0	80	2	4.783	28,1	0,781	340	4,2	A
Santurtziko L. – Trapagarango L.	2,25	80	2	5.386	26,2	0,793	377	4,7	A
Trapagarango L. – Bilbo Hegoaldea	7,15	78	3	6.303	25,2	0,799	292	3,7	A
Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea	4,1	78	3	6.443	29,9	0,770	310	4,0	A

Ortuellako L. – Bilbo Ekialdea guztira	15,50	79	3	6.011	27,0	0,788	311	4,0	A
---	--------------	-----------	----------	--------------	-------------	--------------	------------	------------	----------



3.6.3. ARTXANDAKO TUNELAK

3.6.3.1. Salbe - Txorierri tunela

Salbe – Txorierri tunela aztertzean, kontuan hartu da erreai anitzeko errepidea dela eta galtzada bakarrak osatzen duela, Txorierriantz bi erreai eta Salberantz erreai bat dituenak. Ahalmen handiko bide baten zerbitzuaren intentsitateari buruzko adierazpena, 15 minutuko muturreko aldian, orduko eta erreiko ibilgailu arinetan adierazita (vl/h/c).

$$IS = \frac{Q_H}{FHP \times N \times f_{VP}}$$

Hau da,

- Q_H Trafikoaren bolumena proiektu-orduan, orduko ibilgailu-kopuru osoa aintzat hartuta (v/h), zirkulazioaren noranzko batean.
- Trafikoak 30. orduan duen intentsitatea EBIren % 13 dela kalkulatu da noranzko bakoitzerako.
- MOF (muturreko orduko faktorea) = 0,95.
- $f_{VP} = 1 / 1 + P_{vp} (E_{vp} - 1)$
 - P_{vp} = astunen %
 - E_{vp} = Ibilgailu arinen baliokidea. $E_{vp} = 2$ hartu da
- N = Zirkulazio-noranzko bakoitzeko erreai-kopurua

Trafikoak intentsitatearik handieneko norabidean proiektu-orduan izandako bolumena EBI_n oinarrituz lortzen da, ondoren adierazitakoaren arabera:

$$Q_H = 0,13 \times EBI = 0,13 \text{ EBI}$$

Hortaz, honelakoa da zerbitzu-intentsitatearen adierazpena:

$$IS = \frac{0,13 \cdot IMD}{0,95 \times N \times f_{VP}} = \frac{0,137 \cdot IMD}{N \times f_{VP}} \text{ vl / h / carril}$$

Abiadura askeari dagokionez, tunelak abiadura handiagorako aurreikusi dira, baina, segurtasun-baldintzak tarteko, abiadura hori 80 km/h-koa da tunelen barruan. Hori dela-eta, horixe da fluxu askeko oinarritzko abiadura (VLB), zerbitzu-mailak aztertzeko.

Proiektu-orduan dagoen zirkulazio-dentsitatea honako zatidura honen bidez definitzen da:
 $D_S = I_S / V_L$, km-ko eta erreiko ibilgailu arinetan adierazita (vl/h/c).

Ikus daitekeenez, 2021. urtean erregistratutako datuen arabera, Salbe – Txorierri tunelak A zerbitzu-maila dauka Txorierriantz, eta C zerbitzu-maila, berriz, Salberantz.

ZERBITZU-MAILA		A	B	C	D	E
INTENTSITATEA (IS) (vl/h/c)	VL: 80 lm/h	560	880	1.280	1.760	2.240
	VL: 75 lm/h	525	825	1.200	1.650	2.100
Dentsitatea (DS) (vl/Km/c)		7	11	16	22	28

Tarteak	Luzera (km)	Abiad. askea (AA)	Kop. Erreiak	EBI	Astunen %a	fvp	IS (vl/h/c)	D (vl/km/c)	ZM
Txorierriantz	2,0	80	2	6.604	3,39	0,967	467	5,84	A
Salberantz	2,0	80	1	6.818	3,39	0,967	965	12,06	C

3.6.3.2. Ugasko – Txorierri eta Salbe – Ugasko tunelak

Ugasko – Txorierri eta Salbe – Ugasko tunelak aztertzeko, 2010. urteko Ahalmen Eskuliburuan bi erreiko errepideetarako azaltzen den metodologia erabili da. Luzera txikiko bideak direnez, kalkulurako kontuan hartu da II. mailakoak direla. Horietan, zerbitzu-maila proiektuko muturreko orduan emandako denboraren ehunekoaren mende dago (IH-30) (berandutzearen %), ibilbidearen batez besteko abiadura kontuan hartu gabe.

Bi erreiko errepide baten ahalmena 1.700 ibilgailu/h-koa da, ibilbidearen noranzko bakoitzerako, eta ordu bakoitzeko 3.200 - 3.400 ibilgailuko balioetara heldu ahal da noranzko bietan.

Berandutzearen denbora-ehunekoari (PTSF) dagokion adierazpena:

$$PTSF = BPTSF + f_{d/np} \left(\frac{v_d}{v_d + v_o} \right)$$

$$BPTSF = 100 (1 - e^{-a v_d^b})$$

$$v_d = \frac{Q_d}{FHP \times f_G \times f_{VP}}$$

$$v_o = \frac{Q_o}{FHP \times f_G \times f_{VP}} \text{ Hau da,}$$

- Qd, Qo Trafikoaren muturreko bolumena proiektu-orduan, aztertutako zirkulazio-noranzkoan eta kontrakoan (ibilg./ordu), hurrenez hurren.

- Trafikoak 30. orduan duen intentsitatea EBlren % 13 dela kalkulatu da noranzko bakoitzerako.
- MOF (muturreko orduko faktorea) = 0,95.
- f_G kontzeptuan, lurzorua eragina kontuan hartzen da, % 3tik gorako eta 0,4 km-ko luzeratik gorako arrapaletan.
- $f_{VP} = 1 / 1 + P_{vp} (E_{vp} - 1)$
 - P_{vp} = astunen %
 - E_{vp} = Ibilgailu arinen baliokidea. $E_{vp} = 1$ hartu da
- v_d : trafikoaren intentsitatea kalkuluaren noranzkoan (ibilg./h)
- v_o : trafikoaren intentsitatea kalkuluaren aurkako noranzkoan (ibilg./h)
- a eta b: BPTSF kalkulatzeko parametroak, aurkako trafikoaren intentsitatearen arabera
- $f_{d/np}$ trafikoaren norabide-banaketa onorioz eta aurreratzea debekatuta duten guneen ehunekoaren onorioz gertatzen den berandutze-ehunekoaren gehikuntza da (kasu honetan, tuneleko tartea denez, aurreratzea % 100ean debekatuta dagoela uste da).

2021. urtean erregistratutako datuen arabera, Ugasko – Txorierri tunelak C zerbitzu-maila dauka, eta gehienbat hiri-izaera duen Salbe – Ugasko tunelak, aldiz, D zerbitzu-maila dauka proiektu-ordurako (IH-30).

ZERBITZU-MAILA	A	B	C	D	E
Berandutzearen % (PTSF) II. mota	< 40	40 / 55	55 / 70	70 / 85	> 85

Tarteak	Luzera (km)	EBI	Astunen %a	fvp	f_G	Vd (ibil/h)	Vo (ibil/h)	a	b	BPTSF	$f_{d/np}$	PTSF (%)	ZM
Ugasko - Txorierri tunela	1,5	5.095	3,39	1	0,93	379	370	-0,0018	0,948	39,4	56,8	68,19	C
Salbe – Ugasko tunela	1,1	7.659	3,39	1	1	527	527	-0,0045	0,833	56,5	26,97	70,00	D



4. Korridorean egindako eta aurreikusitako jarduketaren eragina

4.1. EGINDAKO JARDUKETAK

2 003. urteaz geroztik, AP-8 autobidea handitzeko eta hobetzeko hainbat jarduketa abiarazi dira, eta, horri esker, zerbitzu-maila eta segurtasun-maila egokiei eusteko modua izan da autobide horretan. Laburpen modura, berriki egin diren jarduketak azalduko dira ondoren.

2011. urtea

2011ko irailean, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea (MHS) zerbitzuan jarri zen Ortuellako loturaren eta Bilbo Ekialdeko loturaren artean, eta, hala, A-8aren korridoreko trafikoan eragina izan du.

2012. urtea

2012ko ekainean, Iurretaren eta Abadiñoren arteko tartea hiru erreira handitzeko lanak inauguratu ziren (Iurretako ordainlekutik eta Abadiñoko Gerediaga auzunera), guztira 4,7 km. Halaber, trafikorako ireki zen Abadiñoko lotura berria, A-8 autobidea eta N-634, N-636 (Abadiño eta Elorrio) eta BI633 (Berriz, Markina eta Lea Artibai) lotzeko.

2016. urtea

2016ko abuztuan, Elorrioren eta Gerediagaren arteko autobideko obrak inauguratu ziren, AP-8 autobidea eta BI-632 errepideak lotzen dituen eta Elorrioko Saihesbideari jarraipena ematen diona, baita N-636 errepidearekiko lotunea ere Muntzaratz aldean, Abadiñoko eta Atxondoko herrietara eta industrialdeetara joan ahal izateko.

2018. urtea

2018ko urtarrilean, Urdinbideko tunela ireki zen, eta Amorebietaren eta Muxikaren arteko BI-635 errepidea seguruagoa eta irisgarriagoa egingo duen jarduketa baten bukaera da.

Halaber, Uretamendiko tunela eta Ermuko lotura berria (Eitzaga) jarri ziren zerbitzuan. Urtarriletik irailera bitartean, Ermuko Hegoaldeko Saihesbidearen bigarren faseko obrak egin ziren, Eibarko Saihesbideko biribilgunea eta Areitiotik datorren N-634 errepidea lotzeko.

4.1.1. GEREDIAGA - ELORRIO AUTOBIDEA IREKITZEA

Abadiñoako lotura berria 2012ko ekainean jarri zen martxan. Harrezkero, AP-8 autobidea eta N-634, N-636 (Abadiño eta Elorrio) eta BI-633 (Berriz, Markina eta Lea Artibai) lotzeko modua ezarri da, eta trafikoen banaketa berria gertatu da ordainketa itxiko tartean, lurreta eta Gipuzkoarekiko mugaren artean.

Gerediaga eta Elorrio arteko autobia trafikoari irekitzean, handitu egin da lotune horren bidez egiten diren joan-etorrien kopurua, eta horrek AP-8ko trafikoari eragin dio; batez ere, Abadiñoako eta lurretako lotuneen artean. Gainera, *0 tarifa* delakoak areagotu egin du eragin hori, joan-etorri hori egiten duten erabiltzaileek ez dute-eta bidesaririk ordaintzen.

Gerediaga eta Elorrio arteko autobia berriko trafikoari dagokionez, gora egin du 2016ko abuztuan inauguratu zenetik, eta, 2019an, 11.743 ibilgailu/egun izatera iritsi da AP-8

autobidearekin lotzeko tartean (Gerediaga – Muntzaratz tartea); horietatik 1.388 ibilgailu astunak dira (% 11,8).

2020an, trafikoa gutxitu egin zen, eguneko 9.953 ibilgailu izateraino, eta 2021ean, berriz, gora egin du; hala, eguneko 11.766 ibilgailu izatera iritsi da, hau da, azpiegitura martxan jarri zenetik izan den handiena.

Lanegunetan, trafikoak nabarmen gaintitzen du batez besteko balioa, 14.749 ibilgailu/egun, eta pandemiaren aurretik erregistratutako balioen gainetik egoten da; izan ere, % 27,8 igo da 2020ko balioen aldean, eta % 6,9, berriz, 2019koaren aldean.


Hurrengo ataletan, banaka aztertuko dira autobide berria trafikoari irekitzeak AP-8 autobidean eta lotuneetan izan dituen eragin nagusiak.

4.1.1 taula.



Gerediaga – Elorrio autobidea. 2021
Haztaturiko batez besteko trafikoaren hileko banaketa
zirkulazio-noranzkoaren eta ibilgailu motaren arabera.

	EGUNEKO BATEZ BESTEKO TRAFIKOA						LANEGUNETAKO BATEZ BESTEKO TRAFIKOA	
	Elorriorantz		Gerediagarantz		GUZTIRA			
Hilabetea	EBI	Vp	EBI	Vp	EBI	Vp	EBI	Vp
Urtarrila	4.811	632	5.068	711	9.879	1.343	13.757	2.061
Otsaila	5.322	677	5.607	919	10.929	1.596	14.095	2.156
Martxoa	6.236	859	6.571	930	12.807	1.789	15.657	2.436
Apirila	4.994	672	5.949	794	10.943	1.466	15.222	2.214
Maiatza	6.076	700	6.444	829	12.520	1.529	15.820	2.176
Ekaina	6.364	740	6.825	889	13.189	1.629	15.752	2.155
Uztaila	5.997	688	6.273	859	12.270	1.547	14.776	2.106
Abuztua	4.323	487	4.404	528	8.727	1.015	10.251	1.367
Iraila	5.968	668	6.428	749	12.396	1.417	14.587	1.881
Urria	6.329	624	6.651	791	12.980	1.415	16.455	2.056
Azaroa	6.685	710	7.023	868	13.708	1.578	16.749	2.123
Abendua	5.076	600	5.794	573	10.870	1.173	13.727	1.706
URTEKO BATEZBESTEKOAK	5.681	671	6.085	785	11.766	1.456	14.749	2.037


Lanegunetako batez besteko trafikoaren hileko banaketa (ibil./egun) eta hazk.-tasa (%)



**Lanegunetako trafikoaren konparazioa, hilabeteen eta ibil. motaren arabera (ibil./egun),
Gerediaga –Elorrio autobidean (Gerediaga – Muntzaratz tartea).
2019-2021 aldia**



AP-8a kopuruetan, 2021. urtea



Aurreko grafikoetan ikus daitekeenez, Gerediaga – Elorrio autobian lanegunetan erregistratutako trafikoa 2019an eta 2020an erregistratutakoa baino handiagoa izan da, eta azpiegitura ireki zenetik izan duen baliorik handienara iritsi da.

Igoera hori oro har urte osoan gertatu bada ere, urteko azken hiruhilekoan, urritik abendura

bitartean, pandemiaren aurretik baino % 20-30 handiagoa izan da trafikoa, gora egin duelako ibilgailu arinen eta astunen zirkulazioak.

Horrek eragin erabakigarria du AP8 autobideko lotuneetako trafikoetan, Gerediaga – Elorrio autobiarekiko konexioan.

4.1.1.1. Trafikoaren eta lotuneen arteko konexioen hazkundera

Gerediaga eta Elorrio arteko autobia zirkulaziorako irekita, erabiltzaileek aldatu egin dituzte beren joan-etorrietan erabilitako ibilbideak, eta, beraz, trafikoa AP-8 autobideko lotuneen eta N-634 errepidearen artean birbanatu da.

AP8 autobideak eta N634 errepideak Erletxeko lotunetik Ermura bitartean osatzen duten korridorea azken urteetan aztertu ondoren, ikusten da errepide nazionalako trafikoak beheranzko joera duela, eta horrek autobideko trafikoa handitzea dakarrela.

2020ko datuak ohiko trafikoarenak baino askoz txikiagoak direnez, 2019. urteko datuak 2015ean erregistratutakoekin alderatuko ditugu, hau da, Gerediaga – Elorrio autobia trafikora ireki aurrekoekin. Amorebieta Ekialdeko eta Ermuko lotuneen arteko trafikoa egunean ia 4 mila ibilgailuz gutxitu da batez beste N634 errepidean, eta autobidean, berriz, eguneko 23 mila ibilgailu baino gehiagoz handitu.

lurreta eta Abadiño arteko konexioetan da nabarmenen aldaketa hori: AP-8ra lurreta Ekialdea lotunetik sartu eta Abadiño Mendebaldea lotunetik irteten diren ibilgailuak (eta alderantziz), eta, beraz, ez dira igarotzen lurreta, Durango eta Matienan zehar N-634 errepidetik. Batez ere, bi lotuneen arteko ibilgailu astunen trafikoaren kasua da nabarmena.

Hala, bada, 2019an, egunean 6.092 ibilgailuk zirkulatzen zuten (667 ibilgailu astun/egun), eta, 2015ean, batez beste, 2.323 ibilgailu ziren eguneko (81 ibilgailu astun/egun).

2021ean, bi lotuneen arteko konexioek beren balio maximoa erregistratu dute: 6.601 ibilgailu eguneko izan dira, eta, haietatik, 913 astunak izan dira. Horrek adierazten du AP8an ibilgailu arinak % 5,0 igo direla pandemiaren aurreko datuekin alderatuta, eta ibilgailu astunen trafikoa % 34,9 igo dela; errepide nazionalan, berriz, ibilgailu arinen trafikoa % 3,2 gutxitu da, eta astunena, berriz, % 12,5.

4.1.1.1 a) taula


N-634 errepideko trafikoaren bilakaera, Erletxeren eta Ermuaren artean (ibil./egun)

Aztertutako tartea	Kms	Trafikoaren bilakaera (ibil./egun)								Urteko hazkundearen %		
N-634 ERREPIDEA		2015		2019		2020		2021		2020-2021	2019-2021	2015-2021
		EBI	AST	EBI	AST	EBI	AST	EBI	AST			
Erletxe - Amorebieta M.	3,5	23.907	2.610	21.946	2.738	16.987	2.298	20.345	2.978	19,8	-3,7	-2,7
Amoreb. M. – Amoreb. E.	4,0	21.991	3.213	21.749	3.195	18.271	2.868	19.146	2.899	4,8	-6,2	-2,3
Amorebieta E. - Iurreta	7,8	22.983	2.183	19.187	2.661	16.130	2.319	18.911	2.676	17,2	-0,7	-3,2
Iurreta - Abadiño	3,5	16.427	1.419	16.759	1.595	13.311	1.207	16.071	1.396	20,7	-2,1	-0,4
Abadiño – Ermua	11,1	7.006	555	6.665	505	5.355	436	6.004	458	12,1	-5,1	-2,5
Guztira	29,90	16.260	1.677	14.920	1.816	12.186	1.561	13.986	1.768	14,8	-3,2	-2,5


4.1.1.1 b) taula

Eguneko batez besteko trafikoaren hileko banaketa ap-8 autobidean. Iurreta – Abadiño azpitartea. Konparazio-azterketa (2015 – 2021)

Hilabetea	2015		2019		2020		2021		Δ 2020-2021 (ibil./egun)		Δ 2019-2021 (ibil./egun)		Δ 2015-2021 (ibil./egun)	
	EBI	Astunak	EBI	Astunak	EBI	Astunak	EBI	Astunak	EBI	Astunak	EBI	Astunak	EBI	Astunak
Urtarrila	21.222	2.845	32.672	4.080	34.023	4.231	24.560	3.875	-9.463	-356	-8.112	-205	+3.338	+1.029
Otsaila	22.279	3.206	36.122	4.428	37.924	4.724	27.132	4.589	-10.792	-135	-8.990	+161	+4.854	+1.383
Martxoa	24.245	3.384	35.145	4.229	22.689	4.051	33.494	4.953	+10.805	+902	-1.651	+724	+9.249	+1.569
Apirila	24.858	3.173	35.511	4.252	10.859	2.805	30.255	4.383	+19.396	+1.578	-5.256	+131	+5.397	+1.210
Maiatza	25.054	3.178	37.896	4.592	16.815	3.430	32.677	4.494	+15.862	+1.064	-5.219	-98	+7.624	+1.316
Ekaina	26.674	3.515	38.167	4.284	27.998	4.142	36.783	4.910	+8.785	+768	-1.384	+626	+10.109	+1.395
Uztaila	27.938	3.402	38.521	4.384	32.958	4.252	36.553	4.754	+3.595	+502	-1.968	+370	+8.615	+1.353
Abuztua	23.475	2.449	31.317	3.213	26.305	3.114	30.903	3.515	+4.598	+401	-414	+302	+7.427	+1.066
Iraila	26.686	3.353	38.313	4.355	33.385	4.426	38.564	4.691	+5.179	+265	+251	+336	+11.879	+1.338
Urria	25.945	3.315	38.647	4.619	31.367	4.494	37.192	4.475	+5.825	-19	-1.455	-144	+11.248	+1.160
Azaroa	25.041	3.234	35.329	4.207	26.009	4.627	36.873	4.790	+10.864	+163	+1.544	+583	+11.831	+1.556
Abendua	23.870	2.748	33.423	3.586	25.093	3.838	31.425	3.826	+6.332	-12	-1.998	+240	+7.555	+1.078
GUZTIRA	24.783	3.148	35.910	4.183	26.980	3.994	33.055	4.434	+6.075	+440	-2.855	+251	+8.272	+1.286



Guztizkoak



Astunak

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

lurretako enborreko hesia zeharkatzen duen trafikoa, aurten, eguneko 24.455 ibilgailukoa izan da batez beste. Ibilgailu horien jatorria eta helmuga aztertzean ikus daitekeenez, errepide berria jatorritik trafikora irekitzeak aldatu egin du erabiltzaileen portaera, espero zitekeen bezala.

Hala, urtean batez besteko eguna kontuan harturik, 2015ean, egunean enborreko hesia zeharkatzen zuten ibilgailu guztien artean, 1.713 ibilgailu Abadiñoiko lotunearekiko konexioak ziren (% 8,4), eta 2.545, berriz, Ermuko lotunearekikoak (% 12,5). Trafikoaren gainerako %79,1a Gipuzkoako mugarekin loturik zegoen. Azpiegitura berria trafikoari ireki zitzaionetik, Abadiñoiko lotunearekiko konexioak nabarmen handitu ziren.


2019. urtean, egunean enborreko hesia batez beste zeharkatzen zuten 27.706 ibilgailuetatik,

6.367 ibilgailuk Abadiñoiko lotunea zuten abiapuntu edo helmuga (% 23,0), 3.476 ibilgailuk Ermuarekiko konexioak ziren (% 12,5) eta gainerako % 64,5 Gipuzkoako mugarekikoak.

2021ean, 24.455 ibilgailuk zeharkatzen zuten enborreko hesia batez beste egunean. Haietatik, 6.439 ibilgailu Abadiñoiko lotunearekiko konexioak ziren (% 26,3), 3.191 ibilgailu, berriz, Ermuko lotunearekikoak (% 13,1) eta gainerako % 60,6 Gipuzkoako mugarekikoak.

2019. urtearen aldean, pandemiaren aurretik beraz, ikusten da ezen, nahiz eta enborreko hesia zeharkatzen duten ibilgailuen bolumena egunero 3 mila ibilgailu baino gehixeago gutxitu eta lotuneen arteko konexioak jaitsi egin diren, Abadiñoiko lotunearen erabilera-portzentajea 3,3 puntu handitu dela, eta Gipuzkoako mugarainoko konexioak murriztu..

lurretako enborreko hesiko trafiko-erlazioen konparazioa



4.1.1.1. c) taula



Abadiñoiko loturako trafikoaren urteko batez besteko banaketa

	lurretako enborreko hesia–Abadiñoiko L.		lurretako L.-Abadiñoiko L.		Abadiñoiko L.-Ermuko L.		Abadiñoiko L.-Gipuzkoako muga	
	EBI	Astunak	EBI	Astunak	EBI	Astunak	EBI	Astunak
2015eko EBI	1.713	185	2.323	81	1.784	96	1.773	510
2017ko EBI	5.195	364	5.886	580	2.281	134	1.994	539
2018ko EBI	5.830	367	5.870	621	1.740	129	2.318	586
2019ko EBI	6.367	401	6.092	677	2.139	140	2.074	541
2020ko EBI	5.283	376	5.511	803	1.656	92	1.521	406
2021ko EBI	6.439	406	6.601	913	1.859	111	1.872	449
% Δ (2020 – 2021)	% 21,9	% 8,0	% 19,8	% 13,7	% 12,3	% 20,7	% 23,1	% 10,6
% Δ (2019 – 2021)	1,1	1,2	8,4	34,9	-13,1	-20,7	-9,7	-17,0
Tasa % (2015–2021)	24,7	14,0	19,0	49,7	0,7	2,4	0,9	-2,1



Jarraian, bidesari-sistema itxiko lotuneen arteko konexioak konparatzen dira, hileen arabera. Lerro etenak 2016an erregistratutako datuak dira, Gerediaga-Elorrio tartea martxan jarri

ondorengoak; lerro puntudunak, berriz, 2019ko datuak, eta lerro jarraituak, hirugarrenik, 2021eko datuak.

Abadiñoako eta lurretako loturen eta lurretako enbor-hesiaren arteko erlazioen hileko konparazioa (2016-2021)



Abadiñoako eta Ermuko loturen eta Gipuzkoarekiko mugaren arteko erlazioen hileko konparazioa (2016-2021)



2016ko abuztuan, Gerediaga-Elorrio autobia berria ireki zen, eta zirkulazioa areagotu egin zen Abadiñoko lotunean; batez ere, mendebalderantz orientatutako adarretan, hau da, gora egin zuten lurretarekiko konexioek, eta, Enborreko hesiaren bidez, gainerako lotuneekikoek, Bilborakoek eta metropoli-eremurakoek. 2020ko martxotik 2021eko otsailera, halako konexioek behera egin zuten. Martxotik aurrera, berriz, konexioek pandemiaren aurreko erregistroak gainditu dituzte, 2019an erregistratutako trafikoa % 110 inguruko tasekin.

Ibilgailu astunen kasuan, enborreko hesiaren eta Abadiñoko lotunearen arteko trafikoa 2019an erregistratutakoaren antzekoa da; lurreta eta Abadiñoko lotuneen artean (doako bidesaria duen tartean), berriz, trafikoak nasaitasunez

gainditzen ditu 2019ko balioak, batez ere martxotik irailera bitartean; izan ere, bi loturen arteko trafikoa pandemiaren aurretik erregistratutakoa baino 1,5 aldiz handiagoa da gutxi gorabehera.

Aitzitik, Abadiñoko lotunearen eta ekialderanzko adarren arteko konexioak oraindik jarraitzen dute azpiegitura berria inauguratu aurretik erregistratutako balioen azpitik, bai Ermuko lotunerako konexioetan, bai Gipuzkoako mugarakoetan. 2021ean, bi ibilbideetako trafikoa 2019an erregistratutakoen % 80-90 inguru da, eta baliorik txikiak urtarilekoak eta otsailera dira (% 70-75). Hala ere, urteko azken bi hilabeteetan, gora egin du Abadiño eta Gipuzkoako mugaren arteko trafikoa, eta 2019an baino balio handixeagoetara iritsi da.

4.1.1.2. Bidesari itxiko tarteko konexioen gaineko eragina

a) lurreta Ekialdeko lotunea

lurreta Ekialdea lotunean, 2012an Abadiñoko lotunea trafikoari ireki zitzaienetik, trafikoa apurka-apurka handitu da, eta, 2019an, 8.207 ibilgailu eguneko izatera iritsi zen. 2020an, lotune horretako trafikoa eguneko 7.222 ibilgailukoa izateraino gutxitu zen, eta, aurreko urteko 8.600 ibilgailukoa izateraino, hau da, aurreko urtekoa baino % 19,1 handiagoa. Ibilgailu astunen trafikoa areagotu egin da, eguneko 1.341 ibilgailu izateraino: 2020an baino %11,8 gehiago. 2015ean, lotune horretako ibilgailuen batez besteko trafikoa egungoaren ia erdia zen (4.402 ibilgailu eguneko), eta, haietatik, astunak herena inguru ziren (451 ibilgailu eguneko).

b) Abadiño Mendebaldeko lotunea

Abadiño Mendebaldea lotunean, 2015ean erregistratutako batez besteko zirkulazioa eguneko 4.034 ibilgailu izan zen, eta, haietatik, eguneko 266 ibilgailu astunak ziren. Autobia berria irekitzean, trafikoak nabarmen egin du gora: 2021ean, ibilgailu guztien kopurua hiru halako eta gehiago izan da lehengoaren aldean (13.033 ibilgailu eguneko) eta ibilgailu astunen trafikoa bost aldiz handiagoa izan da (1.314 ibilgailu eguneko).

c) Abadiño Ekialdeko lotunea

Lotune horretan, inauguratu zenetik, apurka-apurka handitu da batez besteko zirkulazioa: 2012an, 1.616 ibilgailu eguneko izan zituen, eta, 2015ean, berriz, 3.559 ibilgailu eguneko.

2019an, 4.214 ibilgailu erregistratu dira eguneko. Azken urtean, eguneko 3.725 ibilgailuko zirkulazioa izan da. lurretako lotunetik Gipuzkoarako konexioek beheranzko joera izan dute 2012an Abadiñoko lotunea trafikoari ireki zitzaienetik. Hala, 2011n, lotunea ireki aurretik, eguneko 2.665 ibilgailu izatetik, 2019an 1.479 ibilgailu izatera igaro da. 2020an behera egin ondoren (1.171 ibilgailu eguneko), azken urtean trafikoa % 23,1 handitu da (1.872 ibilgailu eguneko). Ermutik probintziako mugara arteko trafikoari dagokionez, 2011n eguneko 2.859 ibilgailu izan ziren; 2019an gutxiago, eguneko 1.827 ibilgailu (386 ibil. astun/egun), eta, aurreko urteko 1.684 ibilgailu izan dira (340 ibil. astun/egun); beraz, beheranzko joerak aurrera jarraitzen du. Abadiño Ekialdea lotuneak erakarri du trafiko hori; izan ere, 2019an, Gipuzkoako mugarako konexioak eguneko 2.075 ibilgailu izan ziren, eta 2015ean, berriz, eguneko 1.773 ibilgailu. 2021ean, ibilbide horretan 1.872 ibilgailu erregistratu dira eguneko.

d) Ermua Mendebaldeko lotunea

Lotura horretako trafikoa etengabe hazi da 2011tik aurrera, 2018an izan ezik, % 13,3 murriztu baitzen Ermuko hegoaldeko saihesbideko obren ondorioz. 2019an, trafikoak gora egin zuen, eta 6.250 ibilgailu/egun izatera iritsi zen, hau da, aurreko urteetan erregistratutako trafikoa baino askoz ere handiagoa. 2021ean, eguneko 5.654 ibilgailu izan ziren, pandemiaren aurreko erregistroak baino txikiagoa.

4.1.2. ERMUKO HEGOALDEKO SAIHESBIDEA IREKITZEA

2018ko urtarrilean, Uretamendiko tunela eta ordainleku berriak jarri ziren martxan, Eitzaga inguruan, San Lorentzon zeudenen orde. Irailean, Ermuko hegoaldeko saihsbidearen bigarren faseko obrak inauguratu ziren, hau da, Eibarko saihsbidearen biribilgunea ordainleku berriarekin eta Areitiotik datorren N-634 errepidearekin lotzeko lanak.

Lan horiek eragin handia izan zuten Ermuko lotunean 2018an erregistratutako batez besteko trafikoan.

Saihsbide berria martxan jarrita eta ordainlekuen kokapen berriarekin, guztiz bestelako bilakaera izan dute Ermuko Ekialdea lotuneak (Gipuzkoarekiko mugara bideraturiko adarrak) eta Ermua Mendebalde lotuneak (Abadiño, lurreta eta lurretako enborreko hesirako konexioa)..


4.1.2.1. Ermua Mendebaldeko lotura

Ermua Mendebalde lotunean, 2018an, trafikoa batez beste eguneko 1.100 autoz gutxiagotu zen urtariletik irailera bitartean, obretan ari zirenean. Behin lanok amaituta, saihsbidea martxan jarri, eta trafikoa batez besteko balioetara itzuli zen, 2017an erregistratutakoen antzekoetara.


adarretako trafikoa handitzea ekarri zuen. Hala, ibilgailu guztien eguneko batez besteko zirkulazio-emia 6.250 ibilgailukoa izan zen 2019an, 2017an erregistratutakoa baino %5,8 handiagoa. 2021ean, trafikoa eguneko 5.654 ibilgailukoa izan zen, pandemiaren aurretik erregistratutakoa baino are txikiagoa.

Funtzionatzen jarri eta urtebetera, hesia lekuz aldatzeak mendebaldera begira zeuden

Hileko batez besteko trafikoaren konparazioa, ibilgailu-tipologiaren arabera (2017-2021)⁹



Hileko batez besteko trafikoaren konparazioa, AP-8rako sarreren eta irteeren arabera



⁹Lerro etenek 2017ko datuak islatzen dituzte; puntuek 2019koak, eta lerro jarraituek 2021ekoak.

4.1.2.2. Ermua Ekialdea lotunea


2019an lotune horretako trafikoa handitu egin zen aurreko urtekoarekin alderatuta, baina ordainlekua San Lorentzotik Eitzagara aldatzeak Gipuzkoara bideraturiko adarretan ibilgailu arinen trafikoa murriztea ekarri du.

Hala, bada, Ermuko Ekialdea lotuneko ibilgailuen eguneko batez besteko zirkulazio-emia eguneko 2.409 ibilgailu izatetik (2017an)


eguneko 1.826 ibilgailu izatera igaro da (2019an), hau da, % 24,2 jaitsi da ibilgailu guztien kopurua. Azken urtean, lotuneko trafikoa eguneko 1.681 ibilgailu izan da.

Trafikoaren murrizketa berdintsu gertatu da autobidean sartzeko zirkulazioan eta lotunetik irteten diren ibilgailuetan.

Hileko batez besteko trafikoaren konparazioa, ibilgailu-tipologiaren arabera Ermua Ekialdea lotunea (2017-2021)¹⁰



Hileko batez besteko trafikoaren konparazioa, AP-8rako sarreren eta irteeren arabera



¹⁰Lerro etenek 2017ko datuak islatzen dituzte; puntuek 2019koak, eta lerro jarraituek 2021ekoak.

4.2. ARIBIDEKO ETA AURREIKUSITAKO JARDUKETAK

4.2.1. METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA. 1B FASEA

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea AP-68arekin lotzeko 1B fasea egiten ari dira oraindik ere. 2021ean, hainbat mugarri izan dira eraikuntza-arloan.

Hala, maiatzean Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea AP-68arekin lotzeko konexioa gauzatu zen Arrigorriagan, autobidearen gainetik igarotzen den biaduktuaren azken pieza jarri baitzen, eta, irailean, Bolintxuren gaineko biaduktuaren obrak hasi ziren. Obra horien bidez, inguruko ingurumen-erasana murriztu

nahi da, ahalik eta gehien.

Obra guztiak erritmo onean doaz, eta obrak 2023an amaituta egotea aurreikusi da; ondorioz, Bizkaiko mugikortasunerako funtsezko azpiegitura izango da.

Gainera, konpentsazio modura, bizikletentzako eta oinezkoentzako bidexka bat eraikiko da Buiaren eta Beteluriren artean, Abusuren eta La Peñaren artekoa osatzeko, BI-3723 errepidearen galtzada zabalduz.

4.2.2. IBAI AZPIKO TUNELA ERAIKITZEKO PROIEKTUA

2021ean, itsasadarraren azpian ibai azpiko tunel bat eraikitzeako proiektua idazten amaitzeko lanekin jarraitzen dute.

Obra hori Arrontegiko zubiaren ordezkotzako aukera izango da, eta Bizkaiko metropoliko saihesbide handia osatuko du. Bada, lehen kalkuluen arabera, egunean batez beste 51 mila ibilgailu hartzea aurreikusten da; horietatik, 34 mila dira gaur egun Arrontegi erabiltzen dutenak.

Proiektuan, azpiegitura berria intermodala izatea pentsatu da, inbertsioaren etekin sozial eta ekonomikoa handitzeko. Eskari handiena duten mugimenduak tunelera zuzenean sartzeko adarrekin proiektatu dira, gaur egun dauden biribilguneak gainezkatzea saihesteko.

Lanak erritmo onean doaz, eta proiektua 2023rako amaitzea aurreikusi da, azpiegitura berria hamarkada honen amaieran martxan jartzea nahi baita.

4.2.3. ORDAINLEKU-EREMUEN DIGITALIZAZIOA

4,4 milioi euroko inbertsioarekin, Bizkaiko bidesariaren hiru azpiegiturretan (AP-8a, MHS eta Artxandako Tunelak) kudeaketa-sistemak teknologikoki eguneratu eta bateratzen hasi dira.

2021eko udatik, *contactless* txartelekin eta gailu mugikorrek ordaindu dezakegu Supersur autobidean, eta, urtariletik, AP-8an. Horrekin, kobrantzaren eraginkortasuna hobetzeaz gainera, bidesariaren ordainketan dagoen

iruzurra murriztu da.

Gainera, Artxandako Tunelek bidesaridun 7 bideak osatuko dituzte, hesirik gabeko free flow teknologian oinarritutako bi albo-biderek. Kobratzeko sistema horretan, ibilgailuak ez du gelditu beharrik, ezta abiadura murriztu beharrik ere; horrela, trafikoaren arintasuna eta bide-segurtasuna errazten dira.

4.2.4. KARBONOAREN ISURIAK MURRIZTEKO NEURRIAK

Karbonoaren isuriak murriztuko dituen mugikortasun bateranzko trantsizioari bide emango dioten jarduketak sustatze aldera, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak jarri dira Peñaskal, Iurreta eta Artxandako kontrol-zentroetan, ibilgailu elektrikoaren flota bat eduki ahal izan dezagun bide-sarean operazio-, kontserbazio- eta mantentze-lanak egiteko.

Gainera, 2022ko urtariletik, % 25eko deskontua aplikatzen zaio bidesari-tarifen zenbatekoari, ibilgailu arin elektrikoak puruek egiten dituzten ibilbide guztietan.

JARDUKETEN EGUTEGIA	Hasiera	Amaiera
Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea, 1-B fasea	2019	2023
Ibai azpiko tunela eraikitzeako proiektua	2020	2023
Bizkaiko ordainlekuaren digitalizazioa	2021	2022
Karbonoaren isuriak murrizteko neurriak	2021	2022



5. Erabiltzailearentzako arreta

Interbiak foru-sozietate publikoaren helburu nagusienetarikoa bat kudeaketa eraginkorra, gardena eta erabiltzailearengandik hurbilekoa egitea da, azken batean bezeroa Bizkaiko gizarte osoa baita

Autobiderako helburuen artean, Europako estandarrik handien barruan kudeaketa eraginkorra bermatzekoa dago, bezeroaren gogobetetasun handia eta trafikoaren eskariaren kudeaketa egokia uztartuz betiere. Gainera, hiritarrarekiko komunikazio gardena mantendu nahi da, hobekuntza- eta eraikuntza-proiektuei dagokienez.

Horretarako, Interbiak bezeroei arreta emateko zerbitzua sortu du, harremanetan jartzeko bide hauek dituen:

- Bezeroarentzako arreta-telefonoa: 900 840 048
- Posta: Kanariar Uharten kalea 19, 1. solairua. 48015 Bilbo – Bizkaia

- Faxe: 94 405 70 01
- Posta elektronikoa: info@interbiak.eus
- Webgunea: www.interbiak.bizkaia.eus

Bestetik, erabiltzaileek formatu digitalean lor ditzakete fakturak, web-orrialdearen bidez, erabiltzailea erregistratu ondoren. Zerbitzu horrekin, gainera, egindako ibilbideak kontsultatu, aplikatutako deskontuen eta dirulaguntzen berri izan, datuak aldatu, jakinarazpenak jaso... daitezke.

Bestalde, autobidean laguntzeko zerbitzua ere badago, urteko 365 egunetako 24 orduetan erabiltzaileei laguntzeko prest dagoena. Edozer gertatuz gero, autobideko laguntza-taldeak martxan jartzen dira, beharrezko laguntza emateko.

Bezeroen beharrezko hobeto erantzuteko, Interbiak ikerketa egiten du, erabiltzaileek autobidearen ezaugarrien gainean duten iritziari buruzkoa, erabiltzaileen beharrezkoak, eskariak eta espektatibak zein diren jakiteko.

5.1. BEZEROARI ESKAINITAKO KOMUNIKAZIO- ETA ARRETA-ZERBITZUA

5.1.1. DIRULAGUNTZAK ETA DESKONTUAK

122/2020 Foru Dekretuak, abenduaren 30ekoak, "hileko gastuaren muga" arautu du 2021erako. Horren bidez, erabiltzaileei, hilabetea amaitutakoan, bidesari gisa ordaindutako kostuaren % 100 itzultzen zaie, Bizkaiko lurralde historikoan bidesaria duten eta foru-aldundiaren titulartasunekoak diren bide-azpiegituretako edozeinetan 33,45 eurotik gorako hileko gastua (BEZ barne) egiten badute. Halaber, Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoetan bidesaria duten bide-azpiegituretatik egiten diren joan-etorriek ere % 100eko dirulaguntza jasoko dute, baldin eta bidaiaria Bizkaian hasi edo amaitzen

bada eta hileko gastua 48,93 €-tik gorakoa bada, BEZ barne.

Erabiltzaileak hileko gastu hori gaintzen ez badu, hilabete bakoitzeko hamaikagarren bidaiaren (11) eta hogeita bosgarren bidaiaren (25) artean ordaindutako bidesarien zenbatekoaren % 35eko deskontua aplikatuko zaio, zenbateko handienetik txikienera ordenatuta, eta bidesariaren zenbatekoaren % 45ekoa, hilabete bakoitzeko hogeita seigarren bidaiatik (26) aurrera.

5.1.1.1. "Hileko gastuaren muga" dirulaguntza

Bizkaian bizi diren eta erabilera partikularreko ibilgailu arina duten erabiltzaileek "ordainketa-mugako sistema" erabil dezakete. Sistema horrek % 100eko dirulaguntza ematen du onuradunak hilean 33,45 eurotik gorako gastua egiten badu Bizkaian eta/edo 48,93 eurotik gorako gastua egiten badu Gipuzkoan eta Araban, hilean 150 bidaiako mugarekin, bidesaria duten bide-azpiegituretako edozeinetan.


baino gehiago hilean), eta, guztira, 8.548.661,12 € erabili dira.

Dirulaguntza hau jaso duten erabiltzaileek 56,21€ euro aurreztu dituzte hilean, batez beste.

Foru-aldundiak urtean laguntza hauei bideratzen dien zenbatekoa % 32,3 igo da aurreko urtetik (6.460.975,43€), eta pandemia baino lehen (2019an) herritarren bidaiak diruz laguntzeko bideratzen zena baino handiagoa da (8.234.075,93 €).

2021ean, guztira, 241.000 dirulaguntza-eskaera baino gehiago kudeatu dira (20.100 eskaera

HILAB.	Dirulaguntz. erabiltzaile-kop.	Dirulaguntzaren zenb. (%)
Urt	11.320	6,8
Ots	11.431	7,6
Mar	12.803	10,0
Apirila	12.608	7,9
Mai	13.241	9,8
Eka	13.583	9,9
Uzt	12.395	7,7
Abu	9.396	4,2
Ira	13.565	9,6
Urr	13.893	9,2
Aza	14.090	10,2
Abe	13.749	7,0
Guztira		% 100,0 (8.548.661,12 €)



5.1.1.2. Deskontuak

Abenduaren 15eko 123/2020 Foru Dekretuak arautzen ditu 2021. urterako I. eta II. motako ibilgailu astunei aplikatu beharreko deskontuak, baldin eta AP-8 autobidea, Galdakao eta Gipuzkoa arteko muga eta Bilbo eta Santurtzi arteko Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea konbinatuta erabiltzen badituzte eta hilean 20 bidaia edo gehiago egiten badituzte.

Aplikatu beharreko deskontua % 13koa da bi autobideen bidesariaren kostuaren gainean, noranzko bereko erabilera konbinatu denean, edo Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea soilik erabili denean. Bi kasuetan, OBE sistema erabili behar da ordainketa-modu gisara, eta 0

tarifadun ibilbideak kalkulatik kentzen dira. Deskontua emandako lehen pausotik aplikatzen da.

2021ean, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean aplikatutako deskontuen guztizko zenbatekoa 233.601,62 eurokoa izan da, eta, batez beste, hilean 936 onuradun izan dira; 2020arekin alderatuta, zenbatekoak % 24,3 egin du gara.


AP-8aren eta Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen erabilera konbinatuari esleitutako deskontuak 21.002,34 eurokoak izan dira, 2020an baino % 30,1 handiagoak.

Deskontuen hileko banaketa:

MHS eta erabilera konbinatua (zenbatekoa, €)

5.1.1.2 a) taula


HILABETEA	MHS + erabilera konbinatua deskontuen erabiltzaile-kop.	Deskontuaren zenbatekoa (%)
Urt	866	7,1
Ots	890	7,5
Mar	1.126	9,8
Apirila	913	7,7
Mai	995	8,4
Eka	1.074	9,1
Uzt	1.062	9,3
Abu	766	6,8
Ira	1.065	9,0
Urr	1.009	8,2
Aza	1.147	9,7
Abe	914	7,5
Guztira	-	% 100,0 (254.603,96 €)




5.1.1.2. b) taula

Dirulaguntzen eta deskontuen bilakaera, 2011-2021 aldian

URTEA	Dirulaguntzen zenbatekoa (€)	Deskontuaren zenbatekoa (%)	Guztizko zenbatekoa (€)
2011	306.889,05	-	306.889,05
2012	279.129,52	-	279.129,52
2013	277.862,99	122.802,01	400.665,00
2014	356.363,62	502.492,97	858.856,59
2015	381.014,92	529.149,07	910.163,99
2016	461.618,08	577.765,80	1.039.383,88
2017	4.692.732,18	177.584,87	4.870.317,05
2018	7.224.023,27	208.964,81	7.432.988,08
2019	8.234.075,93	218.314,24	8.452.390,17
2020	6.460.975,43	204.148,40	6.665.123,83
2021	8.548.661,12	254.603,96	8.803.265,08



5.1.2. KONTSULTAK.



KONTSULTAK, GUZTIRA **43.983**

2021. urtean, bezeroei informazioa eta arreta emateko Interbiak duen zerbitzuak 43.983 kontsulta jaso zituen gai hauekin lotuta: dirulaguntzak, bidesaridun errepideak, fakturen eskaera eta webgunearen funtzionamendua,

besteak beste. Hala, batez beste, 3.665 kontsulta egin ziren hilean.

Urtarrilean soilik, 19.453 kontsultari eman zitzaion erantzuna; horietatik 18.000 baino gehiago dirulaguntzei buruzkoak ziren, batik bat dirulaguntza horiek emateko egin beharreko izapideari buruzkoak.

Dirulaguntzekin lotutako kontsultei dagokienez, gehiago dira mezu elektroniko bat bidali nahiago izan zuten erabiltzaileak (% 72,1) telefono-deia erabili zutenak baino (% 22,9). Posta arrunta kasuen % 5,0an erabili zen.

Fakturak eskatzearekin edo kontsultatzearekin lotutako izapideak 2.824ra igo dira aurtan, eta kontsulten % 59,7an erabiltzaileak nahiago izan du telefono-deia erabili zailentzako argitzeko.


5.1.2.1. AP-8 autobidea: Usansolo – Gipuzkoarekiko muga

Dirulaguntzekin lotutako izapideak zenbatu gabe, 2021ean AP-8 autobideak Galdakao – Gipuzkoarekiko muga tartean bezeroei informazioa eta arreta emateko duen zerbitzuak 236 kontsultari erantzun zien.


Erabiltzaileak bezero-arretarako zerbitzuarekin harremanetan jartzeko lehenetsitako metodoari dagokionez, berriz, kontsulten % 65,3 telefonoz egiten ziren (154 kontsulta).

Webaren eta postontzien erabilera handitu zen, aurreko urtearekin alderatuta, guztizkoaren % 34,7ra iritsi arte.

Hileko banaketari dagokionez, azaroan eta abenduan erregistratu ziren AP8 autobideko kontsulta gehienak, 45 eta 28, hurrenez hurren.




KONTSULTAK, GUZTIRA **236**




5.1.2.2. Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea

2021. urtean, bezeroei informazioa eta arreta emateko Metropolitik Hegoaldeko Saihesbideak duen zerbitzuak, bere arreta-telefonoaren eta webgunearen bidez, 79 kontsulta artatu zituen, aurreko urtean baino 16 gehiago.

Aurten, kontsulten % 78,5 telefonoz egin dira, eta % 21,5 posta elektronikoz, posta arruntez eta webgunearen bidez. Hala, 62 eta 17 kontsulta erregistratu dira, hurrenez hurren.




KONTSULTAK, GUZTIRA: 79




5.1.2.3. Artxandako Tunelak

2021. urtean, bezeroei informazioa eta arreta emateko Artxandako tunelek duten zerbitzuak 87 kontsulta artatu zituen, bere arreta-telefonoaren

eta webgunearen bidez; horietatik % 74,7 telefonoz egin ziren.



KONTSULTAK, GUZTIRA: 87




5.1.3. ERREKLAMAZIOAK.

5.1.3.1. AP-8 autobidea: Usansolo – Gipuzkoarekiko muga

Interbiak guztira 189 erreklamazio jaso zituen 2021. urtean AP-8 autobidearen Usansolo – Gipuzkoarekiko muga tartearekin lotuta, autobidearen funtzionamenduari dagozkion hainbat konturen harira, 2020. urtean jasotakoak baino 75 gehiago. Erreklamazioaren gai nagusia bidesariaren kobrua izan zen (% 70,4), batez ere irailean eta abenduan, aurrekobru-tiketetan izandako gorabehera baten ondorioz. Bigarren postuan auto-pilaketak eta obrak daude (% 9,5), eta hirugarrenean OBE sistema eta kreditu-txartel bidezko ordainketa (guztizkoaren % 7,4).


Horiek guztiak aztertuta, erabiltzaileei erantzun eta zuzentze-ekintzak hartu ziren.




ERREKLAMAZIOAK, GUZTIRA: 189

Erreklamazioen hileko banaketa

HILABETEA	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	GUZT.
Guztira	1	3	3	11	19	4	8	8	26	20	40	46	189
%	0,5	1,6	1,6	5,8	10,1	2,1	4,2	4,2	13,8	10,6	21,2	24,3	100



5.1.3.2. Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea




2021. urtean 58 erreklamazio jaso ziren guztira, aurreko urtean baino 21 gehiago.

Gehien errepikatu direnak hauekin lotuta daude: bidesariaren kobrua (% 56,9) eta auto-pilaketak eta MHS saihsbidea AP68rekin duen loturan handitzeko obrak (% 13,8).

Seinaleekin lotutako erreklamazioak, zeinak historikoki gehienak izan diren, 4 baino ez ziren izan (guztizkoaren % 6,9).

Erreklamazioen hileko banaketa

HILABETEA	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	GUZT.
Guztira	2	3	2	3	2	1	8	2	10	13	0	12	58
%	3,4	5,2	3,4	5,2	3,4	1,7	13,8	3,4	17,2	22,4	0,0	20,7	100




5.1.3.3. Artxandako Tunelak

2021. urtean, 37 erreklamazio jaso ziren guztira Artxandako tuneletan, aurreko urtean baino 3 gehiago.


Erreklamazio-gai ohikoenak dira: bidesaria kobratzeko sistema (% 51,4) eta auto-pilaketak eta obrak (% 21,6).

Erreklamazio kopururik handiena azaroan erregistratu zen: 9 guztira (guztien % 24,3).



Erreklamazioen hileko banaketa

HILABETEA	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	GUZT.
Guztira	1	2	3	4	1	2	3	1	3	1	9	7	37
%	2,7	5,4	8,1	10,8	2,7	5,4	8,1	2,7	8,1	2,7	24,3	18,9	100




5.1.3.4. Bidesaria web-plataforma

2021. urtean, Bidesaria web-plataformaren erabilerarekin eta haren bidez egin daitezkeen kontsultekin lotuta ere egin zizkioten erabiltzaileek hainbat erreklamazio Interbiaki. Hala, guztira, 1.239 erreklamazio jaso ziren horrekin lotuta.

Dirulaguntzekin lotutako erreklamazioak (% 24,9) eta haiei emandako ezezkoak (% 23,6) izan dira gai ohikoenak, eta ondoren fakturen erreklamazioak (% 16,1).

Kobrua eta dirulaguntzen zenbatekoa edo ibilitako bidea bat ez etortzearekin lotutako erreklamazioak % 9,3 eta % 8,2 izan ziren, hurrenez hurren.



ERREKLAMAZIOAK, GUZTIRA: 1.239

5.2. ERABILTZAILEARENTZAKO AUTOBIDEAN

LAGUNTZA-ZERBITZUA


5.2.1. AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA

2021ean, 1.778 laguntza-jarduera egin zitzaizkien autobideko bezeroei, zirkulazioan sortutako arazoak (istripuak, arazo mekanikoak, arazo atmosferikoak eta bestelako ezustekoak) konpontzen laguntzeko, 2020an egindakoak baino 391 gehiago. Kasurik gehienetan (% 53,5), gertakariaren seinaleztapena jarri du autobideko zerbitzuak, eta erabiltzaileari lagundu dio, kontratatutako zerbitzua edo aseguruia iritsi arte.


Laguntza-jardueren % 2,6 ibilgailuei atoa jarri beharragatik gertatu dira, bidean eragozpenik izan ez zedin, eta, matxura konpontzerik ez zegoenean, erabiltzaileei laguntzeagatik. Kasuen % 3,4n, konponketa-lanetan lagundu behar izan da.

Laguntzen hileko banaketa


HILABETEA	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	GUZT.
Guztira	132	113	146	131	177	168	207	149	132	155	172	96	1.778
%	7,4	6,4	8,2	7,4	10,0	9,4	11,6	8,4	7,4	8,7	9,7	5,4	100




LAGUNTZAK, GUZTIRA: 1.778



5.2.2. METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA



LAGUNTZAK, GUZTIRA: 400



2021ean, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean 400 laguntza-jarduera egin zaizkie autobideko bezeroei, 2020an erregistratutako balioen antzera. Abenduan eta irailean egin dira laguntza-jarduera gehien; 56 eta 52, hurrenez hurren.


Kasurik gehienetan (% 80,8), gertakariaren seinaleztapena jarri du autobideko zerbitzuak, eta erabiltzaileari lagundu dio, kontrataturiko zerbitzua edo aseguruia iritsi arte.

Laguntzen % 8,0 ibilgailuei atoa jartzeko egin dira, bidean eragozpenik ez egoteko eta erabiltzaileei matxura konpontzerik izan ez dutenean laguntzeko.

Laguntzen hileko banaketa


HILA	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	GUZT
Guzti	32	20	28	10	23	34	36	38	52	33	38	56	400
%	8,0	5,0	7,0	2,5	5,8	8,5	9,0	9,5	13,0	8,3	9,5	14,0	100

5.2.3. ARTXANDAKO TUNELAK



LAGUNTZAK, GUZTIRA: 334

Laguntzen hileko banaketa



Aurten, Artxandako Tuneletan, guztira 334 laguntza egin zaizkie autobideko bezeroei, aurreko urtean baino 174 gehiago.

Kasurik gehienetan (% 75,1), gertakariaren seinaleztapena jarri du autobideko zerbitzuak, eta erabiltzaileari lagundu dio, kontrataturiko zerbitzua edo aseguruia iritsi arte.

Laguntzen % 0,3 bakarrik ibilgailuei atoa jarri beharagatik gertatu da, bidean eragozpenik izan ez zedin, eta erabiltzaileei laguntzeagatik, matxura konpontzerik ez zegoenean.

Urteko lehen hiruhilekoan (urtarriletik martxora), guztira 136 laguntza-jarduera egin dira, urteko guztizko kopuruaren % 40.

HILA	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	GUZ.
Guzti	30	42	64	4	40	30	18	21	18	17	26	24	334
%	9,0	12,6	19,2	1,2	12,0	9,0	5,4	6,3	5,4	5,1	7,8	7,2	100

5.3. ZERBITZUAREN KALITATEA. ERABILTZAILEEN IRITZIA

5.3.1. HELBURUAK ETA ERABILITATEKO METODOLOGIA

Interbiakerek zerbitzuaren kalitateari jarraipena egiten ohi dio, bezeroen ikuspegitik egin ere, haien beharrianak, eskaerak eta iguripenak zehazteko asmoz.

Azterketa kuantitatibo bat egin da, 2021eko azaroan telefonoz egindako inkesten bidez. Bada, Bizkaian bizi diren 3.000 gidariren lagina hartu da, eta, lagin hori osatzeko, baita ordainpeko autobideen ohiko 380 erabiltzailerena ere, Interbiakerek aurrez aurreko

bulegoen bidez, telefono bidez eta web-orriaren bidez ematen duen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren kalitatearen balorazioa ezagutzeko.

Erabiltzaileen informazio adierazgarria lortzeko, bizi diren udalerriaren, sexuaren eta adinaren arabera bereizi dira, eta Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren kalitatearen balorazioaren kasuan, gainera, erabiltzaile partikularren eta enpresen arteko bereizketa egin da.


5.3.2. AZTERLANAREN ONDORIOAK

5.3.2.1. Bidesaria programa

Galdekatutako gidari guztietatik, % 42,7k Bizkaiko ordainpeko errepideren bat erabiltzen dute. AP-8a da gehien erabiltzen dena (% 66,1), eta, ondoren, Artxandako Tunelak (% 18,9) eta Metropoliako Hegoaldeko Saihesbidea (% 15,0) datoz.

Eskualdeen arabera banakatuta, Lea-Artibain, Durangaldean eta Arratia – Amorebietan bizi direnek AP-8aren erabileraren % 90 gainditzen dute. Metropoliaren Hegoalde Saihesbidea, batez ere, Enkarterrietako eta Ezkerraldeko biztanleek erabiltzen dute; Artxandako Tunelak, berriz, Txorierriko, Uribe Kosta – Mungialdeko eta Bilboko biztanleek.

Ordainlekuan ordaindutako zenbatekoari dagokionez, galdekatutakoen % 29,3k badakite zer prezio duen beren tarteak ($\pm 0,05$ €); galdekatutakoen % 36,7k, berriz, ez dakite zenbat ordaintzen duten, eta gainerako % 34,0k zenbateko zehaztugabe bat aipatu dute.




Bidesaria programarekiko asebetetze-maila Bizkaia

Bidesaria (ordainketa mugatuko sistema) programari dagokionez, galdetegia egin dutenen % 6,1ek ateratzen dio onura dirulaguntza horri.

Gainerako % 93,9k ez dute dirulaguntza hori jasotzen: % 73,9k merezi ez dielako ez dute erabiltzen, eta % 21,1ek ez dutelako programa ezagutzen.

Galdekatuek Bizkaiko errepideak erabiltzeko dirulaguntzaren inguruan duten asebetetze-maila oso altua da (gastu-muga 33,45 eurokoa da), eta, batez beste, 7,5 puntuko nota jarri diote (0 "batere ez pozik", 10 "oso pozik"). Hala, galdetegia bete dutenen % 72,1ek 7tik gorako nota jarri diote programari, eta % 20,8k 10ekoa.

Bizkaiko ordainpeko errepideak Gipuzkoakoekin eta Arabakoekin konbinatuta erabiltzeari dagokionez (gastu-muga 48,93 eurokoa da), batez besteko balorazioa 7koa izan da. Hala, galdetegia bete dutenen % 1,3k 7tik gorako nota jarri diote programari, eta % 10,9k 10ekoa.



Erabilera konbinatua Gipuzkoarekin eta Arabarekin

5.3.2.2. Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea eta AP68arekiko lotura

Supersur errepidearen balorazio orokorrak oso ona izatean jarraitzen du, eta galdekatutakoen % 54 inguruk 7ko nota edo hortik gorakoa jarri die batez beste.

Azpiegitura hau ezagutzen duten erabiltzaileek (galdekatutakoen % 89,3k) oso ongi bat jarri diete, batez beste, hainbat alderdiri (erosotasuna, joan-etorrien azkartasuna, segurtasuna eta ezaugarri geometriko edo argiztapen ona); halere, % 16k baino pixka bat gehiagok bakarrik dakite Supersurri esker 11

milioi kamioi eta 33 milioi auto baino gehiago kendu direla AP-8tik funtzionamenduan daramatzan 10 urteetan.

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea eta Gasteizekin komunikatzeko AP68 autobidea lotzeko obren balorazioari dagokionez, inkestatutako 10 lagunetik 7k uste dute mugikortasuna hobetuko dutela A8 eta Malmasin inguruan, eta, oro har, beharrezko obra dela uste dute, eta inkestatuen % 71,2k oso edo nahiko beharrezkotzat jotzen dute.

5.3.2.3. Ibai azpiko tunela eraikitze proiektua

Inkestan, Arrontegiko zubiar ordezko eraikuntza bat egiteko premiarekin lotutako galderak sartu dira; izan ere, La Avanzadarekin batera, autoilara gehien sortzen diren tokietako bat da 10etik 4rentzat, ibilgailu pribatuarekin ibiltzeari dagokionez.

Egitasmo honen batez besteko balorazioak oso ongi bat atera du batez beste (8,2ko nota), 0 “ez dago batere premiarik” eta 10 “oso premiazkoa da” izaki.

Gainera, Bilbo, Ezkerraldea, Uribekosta, Mungialdea eta Txorierriko 10 eskualdeetatik 9k uste dute itsasadarraren azpiko errepide berri horrek Bizkaiko trafikoa arintzen lagunduko duela, eta horietatik ia erdiek esan dute azpiegitura berriaren ohiko erabiltzaileak izango liratekeela. Halaber, % 84,2k uste dute oso positiboa izango litzatekeela proiektuak, ibilgailu pribatuen erabilera ez ezik, barruko garraio publikoa ere kontuan hartzea.



5.3.2.4. Bezeroaren Arreta Zerbitzuaren kalitatea

Ordainpeko autobideen ohiko erabiltzaileei dagokienez, 10 inkestatu partikularretik 7k Internet aukeratzen dute (posta elektronikoa eta Bidesaria plataforma) informazioa lortzeko, kontsultak egiteko edo dirulaguntzak izapidetzeko, erosotasunagatik eta ordutegiaren erraztasunagatik. Enpresen kasuan, ehuneko hori 7koa da 10etik.

Izapidearen tipologiari begiratzuz, eta Interbiak BIDESARIA plataformaren erabilerari buruzko analisia kanpo utzita, aurrez aurreko bulegoen erabilerak gora egin du aurreko urtearekin alderatuta, galdekatutakoek adierazitako benetako erabilera aintzat hartuz. Hala, informazioa eskatzeko edo kontsultak egiteko, ehunekoa 2020an % 6koa izatetik 2021ean % 16koa izatera igaro da. Halere, erabiltzaileek nahiago dute telefono bidezko arreta: % 56k informazioa eskatzeko edo kontsultak egiteko erabiltzen dute, eta % 40k laguntzak edo dirulaguntzak eskatzeko. Kexa edo erreklamazio bat jartzeko orduan, erabiltzaileek nahiago dute hain pertsonala ez den metodoren bat erabili; adibidez, posta elektronikoa edo telefono bidezko arreta. "Beste izapide batzuetan" (fakturak, iradokizunak...), batez ere telefono bidezko arreta erabiltzen dute (% 80).


a) Aurrez aurreko bulegoak

Galdekatutako erabiltzaileen % 15ek bakarrik esan dute 2021ean metodo hau erabili dutela Interbiakekin harremanetan jartzeko, aurreko urteetan erabilera orokortuagoa izan bada ere. Bada, erabiltzaileek arreta pertsonalizatua edukitzeko hautatzen dute zerbitzu hori, batez ere. Halere, 10etik 3k adierazi dute orain gutxiago erabiltzen dituztela, COVID-19ak eragindako osasun-pandemiaren aurretik baino.


Erabiltzaile inkestakuek gehien aipatu dituzten izapideak laguntzen eta dirulaguntzen eskaerak eta informazio-eskaerak izan dira (% 40).

Instalazioak nahiz egindako kudeaketa (itxaron-denbora, jasotako informazioa eta izapidea egiteko denbora) oso ongi batekin baloratu dituzte batez beste, eta langileek oso ongi (8) atera dute. Erabiltzaile partikularrek jendeari arreta emateko ordutegiaren inguruan eman dute baloraziorik baxuena (6,7).

Izapideak egiteko lehentasunezko metodoa.



Erabilera partikularra



Enpresak

Gainera, 10etik 2k ez zuten bulegora egindako lehen bisitan bukatu kudeaketa; horien % 83k, baina, bigarren bisitan amaitu zuten.

b) Telefono bidezko arreta

Aurten, inkestakuen % 32k esan dute zerbitzu hau erabili dutela. Izapide ohikoena informazio-eskaera edo kontsultak izan dira (% 52). Enpresen kasuan, baita faktura-eskaera ere. Galdekatuek adierazi dutenez, pandemiaren ondorioz ez dute zerbitzu honen erabilera gehiegi aldatu (10etik 9k berdin erabiltzen dute).

Egindako kudeaketa (arreta jasotzeko itxaron-denbora, jendeari arreta emateko ordutegia eta izapidea egiteko denbora) oso ongi batekin baloratu dute batez beste (8), eta langileek 8,9 atera dute. Hala ere, inkestakuen % 26k ez zuten lehen deian konpondu kudeaketa, eta horien % 65ek web-orrialdearen bidez amaitu zuten izapidea.

c) “Kontaktatu” atala eta emaileko postontzia


Erabiltzaile partikularrek metodo hau erabiltzeko arrazoi ohikoena informazioa eskatzea edo kontsultak egitea da (% 70), edo, bestela, dirulaguntzen izapideak egitea (% 20). Enpresen kasuan, baita fakturak eskatzea ere (% 33).

Pandemiari dagokionez, partikular inkestatuen % 77k adierazi dute lehen bezala erabiltzen dutela; % 7k esan dute gehiago erabiltzen dutela, eta gainerako % 16k gutxiago erabiltzen dutela.

Egindako kudeaketari dagokionez, erabiltzaile guztien balorazioa (partikularrena eta enpresena) altua da (8,2koa eta 8,3koa, hurrenez hurren). Jasotako informazioa, erantzuna jasotzeko itxaron-denbora eta izapidea egiteko denbora oso ondo baloratu dira.

Dena dela, inkestatutakoen % 14k ez zuten kontaktu bakarrarekin amaitu kudeaketa, eta horien erdiek telefono bidezko arretaren bidez amaitu zuten; gainerakoek harremanetan jartzeko web-orria erabili zuten berriro, edo posta elektronikoa.

Erabiltzaile inkestatuen bisitaren arrazoiak



d) Interbiak BIDESARIA plataforma

Ondainpeko autobideen ohiko erabiltzaile partikular inkestatuek, oro har, plataforma ezagutzen dute. % 95ek baino gehiagok ezagutzen dutela esan dute, eta % 97 alta emanda daude, erabiltzaile erregistratu gisa. Pandemiari dagokionez, 10 inkestatutik 9k adierazi dute lehen bezala erabiltzen dutela.

Plataformaren bidez egin daitezkeen izapide guztietatik, erabiltzaile partikularrek gutxien ezagutzen dutena eskudirutan egindako ordainketen faktura-eskaera da. % 12k bakarrik adierazi dute ezagutzen dutela, eta horien % 1k erabiltzen dute. Erabiltzaile mota horiek gehiago ezagutzen dituzte dirulaguntzekin zerikusia daukaten izapideak, bai eskaera (% 99), bai diruz lagundutako ibilbideen inguruko kontsulta (% 65), baina % 40k baino gutxiagok erabiltzen dute zerbitzua.

Plataformaren inguruko balorazio orokorra ona da (7,8); baliagarritzat jotzen dute, eta plataformaren bidez jasotzen duten informazioa argia eta osoa da, eta arrazoizko epeak dauzka. Hala ere, erabiltzaileen ehuneko batek plataforma erabiltzeko zailtasunak dauzka, erregistroan nahiz sarbidean eta webaren

bidezko nabigazioan.

Enpresek gutxiago ezagutzen dute plataforma: inkestatuen % 70ek bakarrik ezagutzen dute, eta horien % 88 daude erregistratuta. Pandemiari dagokionez, % 14k adierazi dute arrazoi horrengatik handitu dutela erabilera.

Plataformaren tresnei dagokienez, enpresa erregistratuek ezagutza-maila handia dute OBE sistemaren fakturak eskatzeko orduan (inkestatu erregistratuen % 67k erabiltzen dute), bai eta egindako ibilbideen kontsultan ere (% 56k erabiltzen dute). Erabiltzaile partikularrek bezalaxe, eskudirutan egindako ordainketen fakturak eskatzeko zerbitzua da gutxien ezagutzen dutena, nahiz eta enpresa inkestatuen % 55ek aukera hori ezagutu.

Plataformaren balorazio orokorra ona da (8,2), eta erabiltzaileek esan dute ez dutela plataforma erabiltzeko zailtasunik. % 86k uste dute informazioa argia eta osoa dela, eta % 91k baliagarritzat jotzen dute plataforma, behar dituzten izapideak egiteko. Dena dela, inkestatuen % 23k Interbiarekin harremanetan jarri behar izan du (batez ere, telefonoz), plataforman hasitako izapiderekin bat amaitzeko.



6. Trafiko-istripuak

6.1. AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA

6.1.1. ISTRIPU- ETA BIKTIMA-KOPURUA. BILAKAERA.

AP-8 ordainpeko autobideko Bizkaiko tartean, 200 istripu izan ziren guztira 2021ean, eta horietatik 30 istriputan (% 15,0) bakarrik izan ziren pertsonentzako


kalteak. Guztira, 45 biktima egon ziren: hildako bat, bi larri zaurituak eta 42 arin zaurituak. Gainerako 170 istripuetan, kalte materialak baino ez ziren sortu.

Istripuen eta biktimen bilakaera

Urteak	ISTRIPU-KOPURUA			BIKTIMA-KOPURUA			
	Guztira	Biktimadunak	%	Guztira	Hildakoak	Larriak	Zauritu arinak
2016	227	28	12,3	43	0	2	41
2017	243	38	15,6	46	0	2	44
2018	243	29	11,9	43	0	1	42
2019	199	27	13,6	38	0	0	38
2020	169	23	13,6	39	0	2	37
2021	200	30	15,0	45	1	2	42

Aurreko urtearekin alderatuta, istripu-kopuruak % 18,3 egin du gora; hau da, 31 istripu gehiago.

Biktimen guztizko kopuruak, berriz, gora egin du azken urte honetan, 39tik 45era.



AP-8 autobideko istripu-tasak behera egin zuen 2014an eta 2015ean, eta azken hamarkadako istripu-kopuru txikiena lortu zen: guztira, 167 istripu, eta biktimak eragin zituztenak 14, 19 biktimarekin. Beherakada horren ondoren, hurrengo urteetan gorakada izan zen, batez ere 2017an eta 2018an.

2020an, osasun-pandemiak ezarritako mugikortasun-mugaketen ondorioz, guztizko istripuen kopuruak eta biktimadun istripuen kopuruak behera egin zuten, baina mugikortasunak baino neurri txikiagoan. Azken urte honetan, istripuen guztizko kopuruak gora egin du, eta 2019an pandemia baino lehen erregistratutako antzeko baliora iritsi da.

6.1.2. EZBEHAR-KOPURUA, TARTEEN ARABERA

Istripu-kopururik handieneko tartea Amorebieta Ekialdea – lurreta izan da; bertan, 63 istripu egon dira guztira, horietatik 7 biktimekin: 12 zauritu arin.

Istripu-kopuruan atzetik, Abadiño - Ermua tartea dago: 32 istripu, 2 biktimekin (guztira, 2 zauritu arin).

lurreta - Abadiño tartean, 29 istripu egon dira guztira. 3 istriputan biktimak egon dira: 5 zauritu arin.

El Gallo/Urgoiti - Erletxe tartean, 20 istripu izan dira, 5 biktimekin: zauritu larri 1 eta 6 zauritu arin.

6.1.2 a) taula

Istripuen banaketaren konparazioa, tarteen arabera. 2021

TARTEA	ISTRIPU-KOPURUA				BIKTIMA-KOPURUA			
	Luzera (Km)	Guztira	Biktimarik gabeak	Biktimadunak	Hildakoak	Zauritu larriak	Zauritu arinak	Guztira
El Gallo/Urgoiti – Erletxe	2,47	20	15	5	0	1	6	7
Erletxe – Boroa Mendebaldea	3,13	12	10	2	0	1	4	5
Boroa Mendebaldea – Boroa Ekialdea	1,14	13	11	2	0	0	4	4
Boroa Ekialdea - Amorebieta Ekialdea	2,56	13	9	4	1	0	4	5
Amorebieta E – lurreta	8,20	63	56	7	0	0	12	12
lurreta – Abadiño	3,50	29	26	3	0	0	5	5
Abadiño - Ermua	7,52	32	30	2	0	0	2	2
Ermua - LHM (Gipuzkoa)	2,40	18	13	5	0	0	5	5
Guztira	30,92	200	170	30	1	2	42	45

Datu horiek aurreko urtean erregistratutakoekin alderatuz gero, istripu guztien kopurua batez ere Zornotza Ekialdearen eta Gipuzkoako mugaren artean ugartu da: 2020an 106 istripu izan ziren, eta aurten, berriz, 142. Horietatik 17k bakarrik izan dituzte biktimak, aurreko urtean baino 5 gehiagok.

Biktimadun istripuak autobidearen tarte guztietan mantendu edo ugartu dira, Abadiño eta Ermuko loturetan izan ezik, istripu 1 gutxiago izan baita horietan.

Ermuaren eta Gipuzkoako mugaren arteko tartea nabarmendu behar da, aurten biktimadun 5 istripu erregistratu baitira eta 2020an ez baitzen horrelako istripurik egon.

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

6.1.2. b) taula

Istripuen banaketaren konparazioa, tarteen arabera. 2019 - 2021 urteak

TARTEA	Istripuak 2019an			Istripuak 2020an			Istripuak 2021ean			Δ 2021-2020			Δ 2021-2019		
	Guzt.	Bikt. ez	Bikt. bai	Guzt.	Bikt. ez	Bikt. bai	Guzt.	Bikt. ez	Bikt. bai	Guzt.	Bikt. ez	Bikt. bai	Guzt.	Bikt. ez	Bikt. bai
El Gallo/Urgoiti – Erletxe	24	20	4	18	14	4	20	15	5	+2	+1	+1	-4	-5	+1
Erletxe – Boroa Mendebaldea	19	16	3	15	13	2	12	10	2	-3	-3	0	-7	-6	-1
Boroa Mendebaldea – Boroa Ekialdea	13	12	1	15	13	2	13	11	2	-2	-2	0	0	-1	+1
Boroa Ekialdea - Amorebieta Ekialdea	12	7	5	15	12	3	13	9	4	-2	-3	+1	+1	+2	-1
Amorebieta E – Iurreta	60	53	7	51	44	7	63	56	7	+12	+12	0	+3	+3	0
Iurreta – Abadiño	23	22	1	22	20	2	29	26	3	+7	+6	+1	+6	+4	+2
Abadiño - Ermua	33	29	4	24	21	3	32	30	2	+8	+9	-1	-1	+1	-2
Ermua - LHM (Gipuzkoa)	15	13	2	9	9	0	18	13	5	+9	+4	+5	+3	0	+3
Guztira	199	172	27	169	146	23	200	170	30	+31	+24	+7	+1	-2	+3

Zirkulazioaren noranzkoaren banaketaren arabera, guztira 101 istripu izan ziren, eta horietako 19an biktimak izan ziren Bilbo – Gipuzkoako noranzkoan (guztizkoaren % 50,5),

eta 99 istripu Gipuzkoa – Bilboko noranzkoan (horietako 11tan biktimak izan ziren, guztizkoaren % 49,5).

6.1.2 c) taula

Istripuen eta biktimen banaketa, noranzkoaren arabera

Noranz.	ISTRIPU-KOPURUA				BIKTIMA-KOPURUA			
	Guztira	%	Biktimarik gabeak	Biktimaadunak	Hildakoak	Zauritu larriak	Zauritu arinak	Guztira
Bilbo - Gipuzkoa	101	50,5	82	19	1	1	27	29
Gipuzkoa - Bilbo	99	49,5	88	11	0	1	15	16
Guztira	200	100,0	170	30	1	2	42	45

6.1.3. ISTRIPUAK HILEEN ARABERA

2021. urtean, 16,7 istripu izan dira batez beste hilean, eta horietatik 2,5 istriputan baino ez da biktimak egon; horrenbestez, 3,8 biktima daude hileko: 0,1 hildako, 0,2 zauritu larri eta 3,5 zauritu arin.


Urrian eta azaroan gertatu dira istripu gehien, 22, eta horietatik 5 eta 7 istriputan izan dira biktimak; abenduan, 21 istripu gertatu dira, biktimaadunak 4, eta, maiatzean, guztira 19 istripu jazo dira, biktimaaduna bakarra.

Martxoan eta azaroan izan dira zauritu larriak eragin dituzten istripuak.

Hildakoa abenduan gertatu zen, Boroa Ekialdearen eta Amorebieta Ekialdearen arteko tartean, egunez, galtzada lehor zegoela, euririk gabe.

Istripuen eta biktimen banaketa hileen arabera

HILAK	ISTRIPU-KOPURUA			BIKTIMA-KOPURUA			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktimadunak	Hildakoak	Zauritu larriak	Zauritu arinak	Guztira
Urtarrila	17	16	1	0	0	1	1
Otsaila	17	16	1	0	0	1	1
Martxoa	16	14	2	0	1	5	6
Apirila	9	8	1	0	0	2	2
Maiatza	19	18	1	0	0	1	1
Ekaina	17	16	1	0	0	1	1
Uztaila	18	17	1	0	0	2	2
Abuztua	7	5	2	0	0	2	2
Iraila	15	11	4	0	0	4	4
Urria	22	17	5	0	0	9	9
Azaroa	22	15	7	0	1	10	11
Abendua	21	17	4	1	0	4	5
Guztizkoak	200	170	30	1	2	42	45
Ohiko hilabetea	16,7	14,2	2,5	0,1	0,2	3,5	3,8



6.1.4. ISTRIPUEI BURUZKO OINARRIZKO ADIERAZLEAK

Arrisku-tasak (I_P) eta heriotza-tasak (I_M) honako formula hau daukate atzean:

$$I_P = \frac{N_P \cdot 10^8}{365 \cdot L \cdot IMD}$$

$$I_M = \frac{N_M \cdot 10^8}{365 \cdot L \cdot IMD}$$

Non hauexek diren:

L = Azterturiko tartearen luzera

IMD = Tarte horrekin lotutako urteko batez

besteko ibilg./egun (euskaraz, EBI)

N_P = Biktimadun istripu-kopurua

N_M = hildakoak izan diren istripuen kop.

Aurreko formulako izendatzailea ($365 \times L \times IMD$) tartearen mugikortasuna da, ibilgailu/km/urte deritzonarekin zatituta. I_P eta I_M espresioek, beraz, honako hau adierazten dute:

I_P = biktima-kop. 100MM ibil-km/urteko.

I_M = hildako-kop. 100MM ibil-km/urteko.

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

6.1.4.1 a) taula

Arrisku- eta heriotza-tasa

TARTEA	Luzera (km)	EBI	Biktimadun istripuak	Arriskua		Heriotza-tasa
				I _p indizea	Maila	
Urgoiti - Erletxe	2,47	38.131	5	14,5	Oso baxua	-
Erletxe-Boroa Mendebaldea	3,13	43.008	2	4,1	Oso baxua	-
Boroa Mendebaldea – Boroa Ekialdea	1,14	31.721	2	15,2	Oso baxua	-
Boroa Ekialdea - Amor.Ekialdea	2,56	32.676	4	13,1	Oso baxua	3,3
Amor. Ekialdea - Iurreta	8,20	35.583	7	6,6	Oso baxua	-
Iurreta - Abadiño	3,50	33.055	3	7,1	Oso baxua	-
Abadiño-Ermua	7,50	23.748	2	3,1	Oso baxua	-
Ermua - LHM (Gipuzkoa)	2,42	19.772	5	28,6	Baxua	-
GUZTIRA	30,92	31.763	30	8,4	Oso baxua	0,3

Ondoko taulan ikusten denez, 2021ean izandako arrisku-tasa 8,4koa da, eta heriotza-tasa, aldiz, 0,3koa. Arrisku-tasa horrek gora egin du, aurreko urtean erregistratutakoaren aldean.

Arrisku-mailari dagokionez, tarte guztiak dira maila “oso baxukoak” ($I_p < 20$) edo maila “baxukoak” ($I_p < 35$).

Tasa	2016	2017	2018	2019	2020	2021
IP	8,2	10,2	7,5	6,8	7,9	8,8
IM	-	-	-	-	-	0,3

Gobernu Ordezkaritzak, Bidesariko Nazio Autobideen Sozietate Emakidadunetan, ezbehar-tasaren adierazle hauek egiten ditu, mugikortasun-mailari lotuta:

- IF_1 : Biktimadun istripu-kopurua 100 MM ibilg./km-ko.
- IF_2 : Biktima-kopurua 100 MM ibilg./km-ko.
- IF_3 : Hildako-kopurua 100 MM ibilg./km-ko.
- IG_1 : Biktima/istripu biktimadunak.

- IG_2 : Hildakoak/istripu biktimadunak.

El Gallo/Urgoitiko loturaren eta Gipuzkoako mugaren arteko guztizko mugikortasuna, 2021. urtean, 385,5 MM ibil x km = $3,855 \times 10^8$ ibil x km izan da (ikus 3.2.1.1c) taula.

Hona hemen urteko batez besteko arrisku-tasak:

- $IF_1 = 30/3,855 = 7,78$ biktimadun istripu 10^8 ibil. x km-ko.
- $IF_2 = 45/3,855 = 11,7$ istripu 10^8 ibil. x km-ko.
- $IF_3 = 1/3,855 = 0,26$ hildako 10^8 ibil. x km-ko.
- $IG_1 = 45/30 = 1,50$ zauritu istripuetan.
- $IG_2 = 1/30 = 0,03$ hildako istripuetan.

Jarraian datorren taulan, 2021ean AP-8 autobideko Usansolo – Gipuzkoa tartean eskuratutako alderaketa-indizeak aurkezten dira, gainerako bidesaridun autobide espainiarrek eskuratutako datuen aldean.

6.1.4.1 b) taula

Bidesaridun beste autobide batzuekiko konparazioa

Autobideak	IF1	IF2	IF3	IG1	IG2
AP-8 (Usansolo – Gipuzkoa)	7,78	11,7	0,26	1,50	0,03
Bidesaridun autobidearen sektorea, guztira	5,16	7,92	0,2	1,53	0,04


AP-8a batezbestekoaren azpitik dago, istripuetako hildakoen kopuruan (IG_2) eta istripuetako biktimen kopuruan (IG_1).

100 MM ibil. x km-ko biktimadun istripuen kopurua (IF_1), 100 MM ibil. x km-ko biktimen kopurua (IF_2) eta 100 MM ibil. x km-ko hildakoen kopurua (IF_3) batezbestekotik zertxobait gora daude.

6.1.5. 2021EAN IZANDAKO ISTRIPUEI BURUZKO BESTE DATU BATZUK


6.1.5 a) taula Istripuak, ibilgailu motaren arabera

Ibilgailu mota	Ibilgailu-kopurua
Arinak	204
Astunak	45
Motorrak	3
Ibilgailu bereziak	-
Atoidun ibilgailuak	-
GUZTIRA	252



6.1.5. b) taula Istripuak, egun motaren arabera

Egun mota	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Jai.	15	12	3	0	1	5	6
Aur.	24	21	3	0	0	4	4
Ond.	0	0	0	0	0	0	0
Lan.	161	137	24	1	1	33	35
GUZTIRA	200	170	30	1	2	42	45




Jai.: Jaieguna; Aur.: Aurrekoa; Ond.: Ondokoa; Lan.: Laneguna

H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak

6.1.5 c) taula Istripuak, faktore atmosferikoen arabera

Faktore atmosfer.	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Txing.	0	0	0	0	0	0	0
Euria	52	39	13	0	1	18	19
B-lainoa	0	0	0	0	0	0	0
Elurra	2	2	0	0	0	0	0
Haizea	0	0	0	0	0	0	0
Normala	146	129	17	1	1	24	26
GUZTIRA	200	170	30	1	2	42	45




Txing.: Txingorra, B-lainoa: Behe-lainoa

H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak

6.1.5 d) taula Istripuak, argitasunaren arabera

Arg.	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Eguna	118	98	20	1	1	25	27
Gaua	74	66	8	0	1	14	15
Ilunt.	8	6	2	0	0	3	3
GUZTIRA	200	170	30	1	2	42	45




Ilunt; Iluntzea

H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

6.1.5 e) taula Istripuak, bidearen ezaugarrien arabera

Bidearen ezaug.	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Bihurg.	92	72	20	1	1	23	25
Zuzena	40	36	4	0	0	8	8
Adarra	14	10	4	0	1	7	8
Inters.	2	2	0	0	0	0	0
Tunela	6	6	0	0	0	0	0
Ordainl.	45	43	2	0	0	4	4
B. batzuk	1	1	0	0	0	0	0
GUZTIRA	200	170	30	1	2	42	45




Bihurg.: Bihurgunea, Inters.: Intersekzioa, Ordainl.: Ordainlekua, B. batzuk: Beste batzuk.

H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak

5.1.5 f) taula Istripuak, kausa posiblearen arabera

Kausa posiblea	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Labaink	14	11	3	0	0	4	4
Hutseg.	27	24	3	0	1	5	6
Sutea	1	1	0	0	0	0	0
G. abiad.	9	8	1	0	0	1	1
J. harr.	16	16	0	0	0	0	0
Ezez.	26	11	15	1	0	19	20
Irismena	9	5	4	0	1	9	10
Animal.	26	25	1	0	0	1	1
Harr.gal.	35	35	0	0	0	0	0
H.mek.	2	1	1	0	0	1	1
Isuria	1	1	0	0	0	0	0
Zulatzeta	5	5	0	0	0	0	0
G.neu.	5	5	0	0	0	0	0
Alkohol+	2	1	1	0	0	1	1
B. zuloa	1	1	0	0	0	0	0
Hesia h.	1	1	0	0	0	0	0
B. batzuk	20	19	1	0	0	1	1
GUZTIRA	200	170	30	1	2	42	45




Labaink.: Labainkada; Hutseg.: Hutsegiteak; G. abiad.: Gehiegizko abiadura; J. harr.: Jaurtitako harriak/objektuak; Ezez.: Ezezaguna; Animal.: Animaliak; Harr. gal.: Harriak/objektuak galtzadan; H. mek.: Huts mekanikoa; Isuria: Erregai-isuria; G. neu.: Gehiegizko neurriak; Alkohol+: Alkoholemia positiboa; B. zuloa: Bideko zuloa; Hesien h.: Hesien hutsegitea; B. batzuk: Beste batzuk

H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak

6.1.5 g) taula Istripuak, kalte materialen arabera

Kalte materiala	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Baliz.	38	22	16	0	1	21	22
Ord.mak.	14	14	0	0	0	0	0
Sein.	3	3	0	0	0	0	0
Zoruak	5	4	1	0	1	3	4
Ibilg.bak.	127	115	12	1	0	17	18
Kab.Mar	6	6	0	0	0	0	0
B. batzuk	7	6	1	0	0	1	1
GUZTIRA	200	170	30	1	2	42	45



Baliz.: Balizajea; Ord. mak.: Ordainlekuko makineria; Sein.: Seinaleztapena; Ibilg. bak.: Ibilgailuko kalteak bakarrik; Kab. Mar: Kabina eta Markesina.

H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak

6.1.5 h) taula Tarteen eta kilometro-puntuen arabera laburpena Behobiarantz

Tartea Behobiarantz	KP	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
		Guztira	Biktimarik gabe	Biktimadun istrip.	Hildakoak	Zauritu larriak	Zauritu arinak	Guztira
Urgoiti – Erletxe	105	3	3	0	0	0	0	0
	104	5	1	4	0	1	5	6
	103	5	5	0	0	0	0	0
		13	9	4	0	1	5	6
Erletxe - Boroa M.	103	2	2	0	0	0	0	0
	102	1	1	0	0	0	0	0
	101	3	3	0	0	0	0	0
		6	6	0	0	0	0	0
Boroa M. – Boroa E.	100	8	7	1	0	0	2	2
		8	7	1	0	0	2	2
Boroa E. – Amorebieta E.	98	4	3	1	0	0	2	2
	97	3	1	2	1	0	1	2
	96	1	1	0	0	0	0	0
		8	5	3	1	0	3	4
Amorebieta E – Iurreta	95	2	2	0	0	0	0	0
	92	5	3	2	0	0	4	4
	91	6	5	1	0	0	3	3
	90	1	1	0	0	0	0	0
	89	2	2	0	0	0	0	0
	88	11	11	0	0	0	0	0
		27	24	3	0	0	7	7
Iurreta – Abadiño	88	2	2	0	0	0	0	0
	87	2	1	1	0	0	2	2
	86	2	0	2	0	0	3	3
	85	5	5	0	0	0	0	0
		11	8	3	0	0	5	5
Abadiño – Ermua	84	1	1	0	0	0	0	0
	82	2	2	0	0	0	0	0
	81	1	1	0	0	0	0	0
	80	1	1	0	0	0	0	0
	79	1	0	1	0	0	1	1
	78	8	8	0	0	0	0	0
	77	1	1	0	0	0	0	0
		15	14	1	0	0	1	1
Ermua – LHM (Gipuzkoa)	77	3	3	0	0	0	0	0
	76	7	3	4	0	0	4	4
	75	3	3	0	0	0	0	0
		13	9	4	0	0	4	4
Behobiarantz, GUZTIRA	30,92	101	82	19	1	1	27	29
Bi noranzkoetan, GUZTIRA	30,92	200	170	30	1	2	42	46

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

6.1.5 i) taula Tarteetan eta kilometro-puntuen arabera laburpena. Bilborantz

Tartea Bilborantz	KP	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
		Guztira	Biktimarik gabe	Biktima-dun istrip.	Hildakoak	Zauritu larriak	Zauritu arinak	Guztira
Urgoiti – Erletxe	105	2	1	1	0	0	1	1
	104	1	1	0	0	0	0	0
	103	4	4	0	0	0	0	0
		7	6	1	0	0	1	1
Erletxe - Boroa M.	102	4	2	2	0	1	4	5
	101	1	1	0	0	0	0	0
	100	1	1	0	0	0	0	0
		6	4	2	0	1	4	5
Boroa M. – Boroa E.	99	5	4	1	0	0	2	2
		5	4	1	0	0	2	2
Boroa E. – Amorebieta E.	98	2	2	0	0	0	0	0
	97	1	1	0	0	0	0	0
	96	2	1	1	0	0	1	1
		5	4	1	0	0	1	1
Amorebieta E – Iurreta	95	3	2	1	0	0	1	1
	94	1	1	0	0	0	0	0
	93	3	2	1	0	0	1	1
	92	3	2	1	0	0	1	1
	91	4	4	0	0	0	0	0
	90	2	2	0	0	0	0	0
	89	3	3	0	0	0	0	0
	88	17	16	1	0	0	2	2
		36	32	4	0	0	5	5
Iurreta – Abadiño	87	5	5	0	0	0	0	0
	86	5	5	0	0	0	0	0
	85	3	3	0	0	0	0	0
	84	5	5	0	0	0	0	1
		18	18	0	0	0	0	1
Abadiño – Ermua	84	1	1	0	0	0	0	0
	83	4	4	0	0	0	0	0
	82	1	1	0	0	0	0	0
	81	2	2	0	0	0	0	0
	80	5	5	0	0	0	0	0
	79	2	2	0	0	0	0	0
	78	2	1	1	0	0	1	1
		17	16	1	0	0	1	1
Ermua – LHM (Gipuzkoa)	76	1	1	0	0	0	0	0
	75	4	3	1	0	0	1	1
		5	4	1	0	0	1	1
Bilborantz, GUZTIRA	30,92	99	88	11	0	1	15	17
Bi noranzkoetan, GUZTIRA	30,92	200	170	30	1	2	42	46

6.2. METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA

6.2.1. ISTRIPU- ETA BIKTIMA-KOPURUA. BILAKAERA

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean, 2021ean 20 istripu izan dira guztira. Istripu horietatik, pertsonak 1ean (% 5,0) izan dituzte kalteak, eta, guztira, 2 zauritu arin egon dira. Gainerako istripuetan (19), kalte materialak baizik ez dira izan.

Datuok 2020an erregistratutakoekin alderatuz gero, gutizko istripuen kopuruak behera egin du (26tik 20ra), baita biktimadun istripuek (4tik 1era) eta biktimen kopuruak ere (5 zauritu arin gehiago), azpiegitura honen mugikortasunak aurreko urtetik hona gora egin duen arren. Beraz, bide honetako arrisku-tasak behera egin du (ikusi 6.2.4. atala).

Istripuen eta biktimen bilakaera

Urteak	ISTRIPU-KOPURUA			BIKTIMA-KOPURUA			
	Guztira	Biktimadunak	%	Guztira	Hildakoak	Larriak	Zauritu arinak
2016	15	1	6,7	1	0	0	1
2017	24	5	20,8	9	0	1	8
2018	18	3	16,7	4	0	0	4
2019	23	3	13,0	3	0	0	3
2020	26	4	15,4	7	0	0	7
2021	20	1	5,0	2	0	0	2

6.2.2. EZBEHAR-KOPURUA, TARTEEN ARABERA

Bilbo Ekialdeko, Bilbo Hegoaldeko eta Trapagarango loturen artean, guztira, 16 istripu erregistratu dira. Biktimadun istripua Trapagarango eta Bilbo Hegoaldeko loturen arteko tartean gertatu da.

Trapagarango eta Santurtziko loturen arteko tartean, guztira 4 istripu erregistratu dira (guztietan, kalte materialak), eta Santurtziko eta Ortuellako loturen arteko tartean, aurten ez da istripurik erregistratu.

6.2.2 a) taula

Istripuen banaketa, tarteen arabera. 2021

TARTEA	Luzera (km)	ISTRIPU KOPURUA			BIKTIMA-KOPURUA			
		Guztira	Biktimarik gabeak	Biktimadunak	Hildakoak	Zauritu larriak	Zauritu arinak	Guztira
Bilbo Ekialdea - Bilbo Hegoaldea	4,10	8	8	0	0	0	0	0
Bilbo Hegoaldea - Trapagarango L.	7,15	8	7	1	0	0	2	2
Trapagarango L. – Santurtziko L.	2,25	4	4	0	0	0	0	0
Santurtziko L. – Ortuellako L.	2,0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	15,5	20	19	1	0	0	2	2

2020ari dagokionez, tarte guztietan murriztu da guztizko istripuen kopurua.

Biktimen kopuruari dagokionez, iaz, 4 istriputan gertatu ziren 7 biktima arinak, Trapagan –

Bilbo Ekialdea tartean. Aurten, biktimadun istripu bakarra egon da, eta arina izan da. 2019an, tarte berean erregistratutako istripu guztiek kalte materialak izan zituzten.

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

6.2.2. b) taula

Istripuen banaketaren konparazioa, tarteen arabera. 2019 – 2021

TARTEA	Istripuak 2019an			Istripuak 2020an			Istripuak 2021ean			Δ 2021-2020			Δ 2021-2019		
	Guzt.	Bikt. ez	Bikt. bai	Guzt.	Bikt. ez	Bikt. bai	Guzt.	Bikt. ez	Bikt. bai	Guzt.	Bikt. ez	Bikt. bai	Guzt.	Bikt. ez	Bikt. bai
Bilbo Ekialdea - Bilbo Hegoaldea	8	8	0	9	7	2	8	8	0	-1	1	-2	0	0	0
Bilbo Hegoaldea - Trapagarango L.	5	5	0	9	7	2	8	7	1	-1	0	-1	+3	+2	+1
Trapagarango L. – Santurtziko L.	10	7	3	6	6	0	4	4	0	-2	-2	0	-6	-3	-3
Santurtziko L. – Ortuellako L.	0	0	0	2	2	0	0	0	0	-2	-2	0	0	0	0
Guztira	23	20	3	26	22	4	20	19	1	-6	-3	-3	-3	-1	-2

Zirkulazioaren noranzkoaren arabera, 2 istripu gehiago izan dira Kantabriarako noranzkoan (13 istripu), Gipuzkoarako noranzkoan baino (5 istripu).

Halaber, 2 istripu egon dira autobideko enborretik kanpo.

6.2.2 c) taula

Istripuen eta biktimen banaketa, noranzkoaren arabera

Noranz.	ISTRIPU-KOPURUA				BIKTIMA-KOPURUA			
	Guztira	%	Biktimarik gabeak	Biktimadunak	Hildakoak	Zauritu larriak	Zauritu arinak	Guztira
Gipuzkoarantz	5	25,0	4	1	0	0	0	0
Kantabriarantz	13	65,0	13	0	0	0	0	0
Adarrak eta Biribilguneak	2	10,0	2	0	0	0	2	2
Guztira	20	100	19	1	0	0	2	2

6.2.3. ISTRIPUAK HILEEN ARABERA


2021. urtean, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean 1,7 istripu izan dira batez beste hilean, eta horietatik 0,1 istriputan baino ez ziren biktimak izan, hileko 0,2 zauritu arin.

Istripu gehien urtarrean gertatu dira (5 istripu); ondoren, abendua eta iraila, 4 eta 3 istripurekin, hurrenez hurren.

Biktimadun istripuak abenduan izan dira.

Istripuen eta biktimen banaketa hileen arabera

HILAK	ISTRIPU-KOPURUA			BIKTIMA-KOPURUA			
	Guztira	Biktimarik gabeak	Biktimaadunak	Hildakoak	Zauritu larriak	Zauritu arinak	Guztira
Urtarrila	5	5	0	0	0	0	0
Otsaila	0	0	0	0	0	0	0
Martxoa	0	0	0	0	0	0	0
Apirila	2	2	0	0	0	0	0
Maiatza	0	0	0	0	0	0	0
Ekaina	2	2	0	0	0	0	0
Uztaila	2	2	0	0	0	0	0
Abuztua	1	1	0	0	0	0	0
Iraila	3	3	0	0	0	0	0
Urria	1	1	0	0	0	0	0
Azaroa	0	0	0	0	0	0	0
Abendua	4	3	1	0	0	2	2
Guztizkoak	20	19	1	0	0	2	2
Ohiko hilaletara	1,7	1,6	0,1	0,0	0,0	0,2	0,2



6.2.4. ISTRIPUEI BURUZKO OINARRIZKO ADIERAZLEAK

Arrisku-tasak (I_P) eta heriotza-tasak (I_M) honako formula hau daukate atzean:

$$I_P = \frac{N_P \cdot 10^8}{365 \cdot L \cdot IMD} \quad I_M = \frac{N_M \cdot 10^8}{365 \cdot L \cdot IMD}$$

Non hauexek diren:

L = Azterturiko tartearen luzera
 IMD = Tarte horrekin lotutako urteko batez besteko ibilg./egun (euskaraz, EBI)
 N_P = Biktimaadun istripu-kopurua
 N_M = hildakoak izan diren istripuen kop.

Aurreko formulako izendatzailea ($365 \times L \times EBI$) tartearen mugikortasuna da, ibilgailu/km/urte deritzonarekin zatituta. I_P eta I_M espresioek, beraz, honako hau adierazten dute:

I_P = biktima-kop. 100MM ibil-km/urteko.

I_M = hildako-kop. 100MM ibil-km/urteko.

Ondoko taulan ikusten denez, 2021ean Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideko tarte osoaren arrisku-tasa 1,7koa izan da, eta maila "Oso baxuaria" eutsi zaio; heriotza-indizea, aldiz, 0koa izan da.

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

Aurreko urtearekin alderatuz, arrisku-indizeak behera egin du; izan ere, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean auto gehiago ibili da, eta, gainera, ezbehar-kopuruak behera egin du.

6.2.4.1 a) taula.

Arrisku- eta heriotza-tasak

TARTEA	Luzera (km)	EBI	Biktimadun istripuak	Arriskua		Heriotza-tasa
				I _p indizea	Maila	
Bilbo Ekialdea - Bilbo Hegoaldea	4,10	11.927	0	0,0	Oso baxua	-
Bilbo Hegoaldea - Trapagarango L.	7,15	11.037	1	3,5	Oso baxua	-
Trapagarango L. – Santurtziko L.	2,25	9.292	0	0,0	Oso baxua	-
Santurtziko L. – Ortuellako L.	2,0	8.148	0	0,0	Oso baxua	-
GUZTIRA	15,50	10.646	1	1,7	Oso baxua	0,0

Tasa	2016	2017	2018	2019	2020	2021
IP	1,6	7,7	4,3	4,3	7,9	1,7
IM	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

Gobernu Ordezkaritzak, Bidesariko Nazio Autobideen Sozietate Emakidadunetan, ezbehar-tasaren adierazle hauek egiten ditu, mugikortasun-mailari dagokionez, eta hori lehen aipaturikoekin lotuta dago:

- IF₁ : Biktimadun istripu-kopurua 100 MM ibilg./km-ko.
- IF₂ : Biktima-kopurua 100 MM ibilg./km-ko.
- IF₃ : Hildako-kopurua 100 MM ibilg./km-ko.
- IG₁ : Biktimak/istripu biktimadunak.
- IG₂ : Hildakoak/istripu biktimadunak.

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen mugikortasun osoa hauxe izan da 2020an: 60,24 MM ibilg./km = 0,602 x 8 ibilg./km (ikus 3.2.2.2. taula).

Hortaz, urteko arrisku- eta heriotza-tasak honako hauek dira:

- IF₁ = 1/0,602 = 1,66 biktimadun istripu 10⁸ ibil. x km-ko.
- IF₂ = 2/0,602 = 3,32 istripu 10⁸ ibil. x km-ko.
- IF₃ = 0/0,602 = 0 hildako 10⁸ ibil. x km-ko.
- IG₁ = 2/1 = 2 biktimadun istripuetan zaurituak.
- IG₂ = 0/1 = 0 biktimadun istripuetan hildakoak.

Jarraian datorren taulan, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean eskuratutako konparazio-indizeak aurkezten dira, bidesaridun gainerako autobide espainiarrek eskuratutako datuen aldean.

MSH batezbestekotik behera dago honako hauetan: istripu bakoitzeko hildakoen kopurua (IG₂), 100 MM ibil. x km-ko hildakoen kopurua (IF₃), 100 MM ibil. x km-ko biktimadun istripuen kopurua (IF₁) eta 100 MM ibil. x km-ko biktimen kopurua (IF₂). Istripu bakoitzeko biktimen kopuruan (IG₁), baina, batezbestekoa gaunditzen du zertxobait.

6.2.4.2 b) taula


Konparazioa bidesaridun beste autobide batzuekin

Autobideak	IF1	IF2	IF3	IG1	IG2
Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea	1,66	3,32	0,00	2,00	0,00
Bidesaridun autobidearen sektorea, guztira	5,09	7,8	0,22	1,53	0,04

6.2.5. 2021EAN IZANDAKO ISTRIPIUEI BURUZKO BESTE DATU BATZUK

6.2.5 a) taula Istripuak, ibilgailu motaren arabera


Ibilgailu mota	Ibilgailu-kopurua
Arinak	23
Astunak	8
Motorrak	-
Ibilgailu bereziak	-
Atoidun ibilgailu astunak	-
GUZTIRA	31



6.2.5. b) taula Istripuak, egun motaren arabera

Egun mota	Istipu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Jai.	4	3	1	0	0	0	0
Aur.	6	6	0	0	0	0	0
Ond.	2	2	0	0	0	0	0
Lan.	8	8	0	0	0	2	2
GUZTIRA	20	19	1	0	0	2	2


Jai.: Jaieguna; Aur.: Aurrekoa; Ond.: Ondokoa; Lan.: Laneguna



H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak

6.2.5 c) taula Istripuak, faktore atmosferikoen arabera

Faktore atmosf.	Istipu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Txingorra	4	4	0	0	0	0	4
Euria	3	2	1	0	0	2	3
Normala	13	13	0	0	0	0	13
GUZTIRA	20	19	1	0	0	2	2




H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak

6.2.5 d) taula Istripuak, argitasunaren arabera

Arg.	Istipu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Eguna	15	15	0	0	0	0	0
Gaua	4	3	1	0	0	2	2
Ilunt.	1	1	0	0	0	0	0
GUZTIRA	20	19	1	0	0	2	2

Ilunt.: Iluntzea




H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak

AP-8a kopuruetan, 2021. urtea

6.2.5 e) taula Istripuak, bidearen ezaugarrien arabera

Bidearen ezaug.	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Bihurg.	2	2	0	0	0	0	0
Zuzena	5	5	0	0	0	0	0
Adarra	2	2	0	0	0	0	0
Tunela	10	9	1	0	0	2	2
Ordainl.	1	1	0	0	0	0	0
GUZTIRA	20	19	1	0	0	2	2

Bihurg.: Bihurgunea; Ordainl.: Ordainlekua;




H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak

6.2.5 f) taula Istripuak, kausa posiblearen arabera

Kausa posiblea	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Hutseg.	7	6	1	0	0	2	2
Sutea	1	1	0	0	0	0	0
Animal.	1	1	0	0	0	0	0
Ezez.	3	3	0	0	0	0	0
Irismena	4	4	0	0	0	0	0
Kolt-gal.	3	3	0	0	0	0	0
Hesia h.	1	1	0	0	0	0	0
GUZTIRA	20	19	1	0	0	2	2

Hutseg.: Hutsegiteak; Animal.: Animaliak; Ezez.: ezezaguna; Kolt-gal.: Kontrol-galera; Hesiaren h.: Hesiaren hutsegitea

H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak




6.2.5 g) taula Istripuak, kalte materialen arabera

Kalte materiala	Istripu-kopurua			Biktima-kopurua			
	Guztira	Biktima gabeak	Biktima dunak	H.	Z.L.	Z.A.	Guztira
Ibilg. bak.	10	10	0	0	0	0	0
Eus. Sist. eta Baliz.	3	3	0	0	0	0	0
Petrila	3	3	0	0	0	0	0
B. batzuk	4	3	1	0	0	2	2
GUZTIRA	20	19	1	0	0	2	2

Ibilg. bak.: Ibilgailuko kalteak bakarrik; Eus. Sist. eta Baliz.: Eusteko sistema eta Balizajea; B.batzuk: Beste batzuk

H: Hildakoak; Z.L.: Zauritu larriak; Z.A.: Zauritu arinak



6.2.5 h) taula Tarteen eta kilometro-puntuen arabera laburpena Gipuzkoarantz

Tartea Gipuzkoarantz	KP	Istripu-kopurua			Hildakoak	Biktima-kopurua		
		Guztira	Biktimarik gabe	Biktima-dun istrip.		Zauritu larriak	Zauritu arinak	Guztira
Bilbo Ekialdea - Bilbo Hegoaldea	117	1	1	0	0	0	0	0
	118	2	2	0	0	0	0	0
		3	3	0	0	0	0	0
Bilbo Hegoaldea - Trapagarango L.	121	1	0	1	0	0	0	0
		1	0	1	0	0	0	0
Trapagarango L. – Santurtziko L.	126	1	1	0	0	0	0	0
	127	1	1	0	0	0	0	0
		2	2	0	0	0	0	0
Santurtziko L. – Ortuellako L.		0	0	0	0	0	0	0
MHS, guztira, Gipuzkoarantz		6	5	1	0	0	0	0
MHS, guztira, adarretan		1	1	0	0	0	2	2
MHS, GUZTIRA, bi noranzkoetan		20	19	1	0	0	2	2

6.2.5 i) taula Tarteen eta kilometro-puntuen arabera laburpena Kantabriarantz

Tartea Kantabriarantz	KP	Istripu-kopurua			Hildakoak	Biktima-kopurua		
		Guztira	Biktimarik gabe	Biktima-dun istrip.		Zauritu larriak	Zauritu arinak	Guztira
Bilbo Ekialdea - Bilbo Hegoaldea	115	3	3	0	0	0	0	0
	119	2	2	0	0	0	0	0
		5	5	0	0	0	0	0
Bilbo Hegoaldea - Trapagarango L.	119	3	3	0	0	0	0	0
	122	1	1	0	0	0	0	0
	124	2	2	0	0	0	0	0
		6	6	0	0	0	0	0
Trapagarango L. – Santurtziko L.	127	1	1	0	0	0	0	0
	128	1	1	0	0	0	0	0
		2	2	0	0	0	0	0
Santurtziko L. – Ortuellako L.		0	0	0	0	0	0	0
MHS, guztira, Kantabriarantz		13	13	0	0	0	0	0
MHS, guztira, adarretan		1	1	0	0	0	2	2
MHS, GUZTIRA, bi noranzkoetan		20	19	1	0	0	2	2

6.3. ARTXANDAKO TUNELAK

Artxandako Tuneletan, 2021an istripu bakarra erregistratu da, Deriotik Txorierriko ordainleku-gunera sartzeko adarrean, baina ez da inor zauritu.

Ekainean izan zen, egunez, galtzada lehor zegoela eta argiztapena egokia zela. Ibilgailuaren gaineko kontrola galtzeagatik gertatu zen.

Istripuen eta biktimen bilakaera

Urteak	ISTRIPU-KOPURUA			BIKTIMA-KOPURUA			
	Guztira	Biktima-dunak	%	Guztira	Hildakoak	Larriak	Zauritu arinak
2016	2	0	0	0	0	0	0
2017	11	3	27,3	3	0	0	3
2018	1	0	0	0	0	0	0
2019	1	0	0	0	0	0	0
2020	1	0	0	0	0	0	0
2021	1	0	0	0	0	0	0



7. Fakturazioaren banaketa, erabilitako ordaintzeko moduen arabera

7.1. AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA



2021ean, teleordainketako sistema (OBE) izan da AP-8ko erabiltzaileek nahiago izan duten ordainbidea. Hala, 2011n, kasuen % 37,8n erabili zen teleordainketako sistema. 2021ean, berriz, fakturazio osoaren % 70,7 izan da, eta, aurreko urtean erregistratutako datuekin alderatuta, zertxobait behera egin du.

Lehentasunezko erabilera hori arrazoi hauengatik gertatu da: alde batetik, erosotasunarengatik, joan-etorria egiteko ez

dagoelako ibilgailua gelditu beharrik; eta, bestetik, diru-laguntzak emateko hartutako irizpidearengatik, baldintzetako bat ordainketa bide telematikoetatik egitea delako.

Kreditu-txartela guztizko fakturazioaren % 22,3 da, aurreko urtetan baino pixka bat gorago.

Eskudirutan egindako ordainketak hirugarren lekuan egoten jarraitzen du, eta % 7,0n dago, 2020. urtean erregistratutako balioetatik hurbil.





7.2. METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen erabiltzaileek 2021ean nahiago izan duten ordainbidea teleordainketako sistema (OBE) izan da. Fakturazio osoaren % 79,1 erregistratu du, aurreko urteko balioen antzera.

2013ra arte, kreditu-txartela zen ordaintzeko sistema erabiliena, eta, 2014-2019 aldian, hirugarren tokian egon da. Aurten, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean gehien erabili den bigarren metodoa izan da, eskudirutan egindako ordainketen jaitsieragatik (% 8,0).

Kreditu-txartelak guztizko fakturazioaren % 12,9 bildu du azken urte honetan.

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean erabilitako ordainketa-metodoen banaketa





7.3. ARTXANDAKO TUNELAK

2021ean, Artxandako Tunelen erabiltzaileen % 66,2k egin dituzte ordainketak teleordainketa-sistemaren bitartez. Hala, teleordainketak fakturazioaren % 10 inguru egin du gora azken bost urteetan.

Bigarren lekuan, eskudirutan ordaintzeko sistema egon ohi zen, baina, aurten, kreditu-txartelaren bidezko ordainketak hartu du toki hori: urteko fakturazio osoaren % 19,8n erabiltzen da. Aurten, eskudirutan egindako ordainketa urteko guztizko fakturazioaren % 14,0n erabili da.

Artxandako Tuneletan erabilitako ordainketa-metodoen banaketa





www.interbiak.bizkaia.eus

 **Bizkaia**
interbiak